

Arrasate

P R E S S

2004ko martailaren 30-a

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 23a / 630. zenbakia

Arrasateko
GAZTEEN
kontseilua




GAZTE ASTEA

GAZTE TALDEEK GAZTE
KONTSEILUAN BAT EGIN ETA
KULTURA EGITARUA ANTOLATU DUTE

ORAIN ETA HEMEN: EMAKUME TXOKOAREN EGITARUA/8 • KULTURA: SANTA AGEDA ESKEAN/14

OSASUN GIDA/24

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN. AZALA: ALEX AZKARATE




TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea: 

Eguazteno,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu musika talde euskaldunekin egitten dabitzena?



J. J. ARRIETA
Langillie



ANA ERRASTI
Langillie



JOXE EPELDE
Langillie



RAQUEL DE DIEGO
Langillie



GARIKOITZ HERIZ
Langillie



AINHOA CANAS
Langillie

Txarto, ze pensauko jat ba!
Hala eta be, hamen jaleo
haundixe montetan gabitz,
baiñe hamendik kanpora
anekdota hutsa baiño ez da.
Gobernuen zeintzuk dau-
zen ikusitue, norrialda da.

Zentsura hori ezin da inun-
dik inora onartu, ez musi-
kan eta ez beste edozein
arlotan be. Kontue da ez
dala lelengo aldixe, eta bes-
te arlo batzutan be egin
dauela holakuek.

Txarto pentsetan jat. Kul-
turiek libre izen biher dau,
eta bakoitzak elegidu dai-
xela gehixen gustetan jakona.
Hamen ez da holakorik
pasauko; ze herri klase izen-
go gitzen bestela!

Oso txarto pentsetan jat,
baiñe ez euskal musikan
kontra egitten dauelako
bakarrik; beste edozein
musikan kontra egingo
baleue be, bardin pentsau-
ko neuke.

Txarto. Azkenaldixen Fer-
min Muguruzan gaineko
barrixek gabitz entzuten,
eta neuri abeslari hori asko-
rik gustetan ez jaten arren,
boikotan asuntue ez dot
ondo ikusten.

Txarto pentsetan jat, oso
txarto. Musika taldiek libre
izen biher die gure dauen
musikie egituko. Mondra-
guen ez da holakorik pasau-
ko, hamen ez daue inor zen-
tsurauko.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK DRAGOIA MARGOTU DUTE Joan den egubakoitzean,
arrasatear bat Santa Barbara parkera igo zen, eta hara! Santa Barba-
rako dragoia margotuta aurkitu zuen. Arrasatear hori haserretu egin
zen, eta, haren esanetan, pena da herriko sinbolearen irudi hori axo-
lagabeki margotzea. Dragoia margotu dutenei errieta egin gura die, eta
hurrengoan halakorik ez egiteko eskatzen die.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

Zerrajera garbitzen

Oraingo astean
hasi dira torloju
fabrika zaharrean
aurkitutako
elementu kutsako-
rrak garbitzen.

KIROLA / 11

Isa Casadori elkarrizketa

Oraingo astebu-
ruan hasiko du
Isa Casadok
mendizeharko
eskian Euskadiko
Kopa, Gabarnien.

KULTURA / 13

Flamenko Txapelketa

Bihar, zapatua, Al
Andalus elkarte-
ren II. Cante
Flamenko Txapel-
keta egingo dute,
Amaia antzokian.

IRAKURLEAK MINTZO

BELENZALEEN ELKARTEARI ERANTZUNA

Lehenik eta behin, orain bi
asteko ARRASATE
PRESSko Txaloak eta
txistuak atalean agertutako
kexaren erantzule Arrasateko
EHE dela berriz adierazi nahi
dugu, orduko artikuluan ere
horrelako aipatzen zelarik.

Bestetik esan, keza bideratu
aurretik jaiotzean zegoen
musikaren jarraipena egiten
aritu izan ginela, zenbait
persona, hainbat egun eta ordu
ezberdinetan gainera, eta
ingeles ez eta latinezko kantu
solteren bat kenduta, entzun
genituen guztiak gaztelera
hutsan zirela (*Arre burriquito*
eta horrelakoak). Guri behintzat
ez zitzaigun euskarazkorik
suertatu, bada ere, zuek
kontrakoa badiozue horrela
izango da. Dena den, gutxienez,
jarritako hizkuntz arrotzen
Gabon kantun kopurua
%90ekoa zen, eta euskarari
"asko jota" latinari emandako
garrantzi bera eman zaio.

Beraz, ez deritzogu zintzoa,
euskarari eman zaion
garrantzirik eza justifikatzeko,
ipinitako kantuak lau
hizkuntzatan izan direla
aitzakiatzat erabiltzea.
Bukatzeko, eta Gabon kantak
umeei zuzenduta daudela
kontuan hartuta, euskarari
emandako tokia nahikoa dela
uste duzue?

ARRASATEKO EUSKAL
HERRIAN EUSKARAZ

HERRITARREN BERBAK/ Antton Mendizabal



Burujabetza ekonomikoa

Burujabetza ekonomikoa
burujabetza osoaren
oinarri materiala dela.
Euskal Herriko eremu
ekonomikoa gauzatzeko hiru
elementu dira erabakigarriak.
Lehena politikoa. Gure herria-
ren onarpena eta berak duen
autodeterminazioarako eskubi-
dea ezinbesteko
hezurdura dira
horretarako. Eraba-
kitzeka eskubidea ez
daukagun bitartean,
garapena ezinezko
dira gure herrian.
Askatasunik gabe
garaipenik ez
dagoelako, eta
partaidetzarik gabe
demokrazia ezinezkoa delako.
Estatu propioaren aldeko
eraikuntza, burujabetza ekono-
mikoaren aldeko egitasmoaren
muina da.

Bigarrena jabetza da.
Globalizazioan, euskal eremu
ekonomikoa gauzatzeko,
betidaniko jabetza pribatua
gainditu beharra dago; horrek
hemengo ekonomia deslurrera-
tu egiten duelako. Prozesu
horren aurka, bi jabetza mota
garatu behar genituzke. Koope-

ratiboa lehena; zeinek gizarte-
ren kapitala mila zati eginez,
prozesu ekonomikoa lurralde
konkretu batean sustraitzen du;
globalizazioak daraman ekoizpe-
nei leku-aldaketen logikaren
aurka. Jabetza publiko-komuni-
tarioa, bigarrena. Izen horrekin
udal jabetza, lurraldekoa,

**"Esaterako,
Debagoiengan
egindako
ingurugiro-
hondamena
bueltaezina da"**

probintziakoa edo
nazionala aipatzen
ditugu. Jabetza
publikoaren norabi-
de eta edukia ere
ahalbideratuta be-
har genduke. Estatu-
izaera murriztu eta
publikotasuna edo
komunitatearen
jabetzari dagokiona
garatu.

Hirugarrena lurra da.
Lurraren jabetza publikoa
burujabetza ekonomikoaren
ezinbesteko oinarria dugu. Hori
gabe ez dago elikagaien buruja-
betta, ezta ere bilakaera ekono-
miko orekatua, ezinezkoa da
gure habitata antolatzea eta
ezinagoa bioaniztasuna manten-
tzea. Zoritxarrez, Debagoiengan,
ingurugiro-hondamena bueltae-
zina da eta jabetza ekonomikora-
ko ezinbesteko den zutabea,
agian, betirako galdu egin dugu.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
Ruiz. Maala 31 943 77 14 09
- ZAPATUA, 31**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- DOMEKA, 1**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 2**
Azkoaga. Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- MARTITZENA, 3**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 4**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 5**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 6**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokoa**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokoa**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

GAZTE ASTEA

Arrasateko Gazte Kontseiluak Gazte Astea antolatu du. Gaur hasiko da, egubakoitza, eta otsailaren 6ra arte ekintza mordo egingo dituzte.

IKUSKIZUNA ITURBIDEN

Eguenean, otsailaren 5ean, Ausardi antzerki taldeak *Mujeres* ikuskizuna eskainiko du Iturbide egoitzan. 17:00etan izango da, doan.

MEATZERREKAKO JAIK

Gaur (egubakoitza) hasi eta domekara arte San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meatzerreka auzoan.

GESALIBARKO JAIK

Eguenean (otsailak 5) hasi eta domekara arte jaiak ospatuko dituzte Gesalibar auzoan.

SANTA AGEDA BEZPERA

Eguaztenean, otsailaren 4an, Santa Ageda eskean irtengo dira herriko hainbat lagun. Batutako dirua behartsuendako izango da.

CANTE FLAMENKO TXAPELKETA

Bihar, zapatua, Al Andalusek antolatutako II. Cante Flamenko Txapelketako finala jokatu dute. 19:00etan izango da, Amaia Udal Antzokian. Doan izango da.

AEDren AGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK

AED elkarteak antolatzen dituen Arrasate Lehiaketak 17. aldia dute. Eta lanak aurkezteko azkeneko eguna da otsailaren 6a (egubakoitza). Hainbat sail daude: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia eta euskalki-grabazioa, hain zuzen ere. Interesatuok bidali zuten lanak honako helbidera: AED. Pablo Uranga 4.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10URTE ARRASATEN

Euskal Herriko gaztetxeen batzarra

Gaztegin-ek antolatuta, Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte batzarren bilera egin zuten Arrasateko gaztetxean. Hainbat eta hainbat herritako gazteak batu ziren, eta gaztetxeen gaineko etorkizunaz luze berba egin zuten. Horrez gain, Euskal Herriko gaztetxeen mapa egin zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Esku-zatarra."



Eskuak lehertzeko eta abar sukaldean erabiltzen den zapia. —*Ekarri esku-zatarra eskuak garbitzeko.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA 4 °C
Domeka, 25

MAXIMOA 13 °C
Egubakoitza, 23

ASTEKO EURIA (l/m²) 101 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	9 °C	6 °C	1,5 l/m²
Eguena, 22	13 °C	6 °C	8,4 l/m²
Egubakoitza, 23	13 °C	7 °C	37,1 l/m²
Zapatua, 24	13 °C	12 °C	2,9 l/m²
Domeka, 25	12 °C	4 °C	11,8 l/m²
Astelehena, 26	12 °C	9 °C	14,9 l/m²
Martitzena, 27	8 °C	7 °C	9,8 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Mikel Aranbururen itzulera!!!

Mikel Aranburu oñatiarrak *Noraezean* izeneko saioa estreinatuko du Arrasate Irratian. Eguenetan izango da, 19:10ean, eta lehenengoa otsailaren 5ean egingo du. Hainbat tarte izango ditu saioak, baina pertsona ezagunei egindako elkarrizketak azpimarratu behar dira. Ilaski Serrano Euskadi Gazteko esataria elkarrizketatuko du eguenean. Horrez gainera, bi bilagunen arteko gorabeheretan oinarritutako pasarte umoretsuak eta musika ere izango dira.



Usoek hainbat arazo sortzen dituzte

Kontzezinon bizi den bizilagun batek, Agustin Etxeberriak, usoei zein arazo duten kontatu digu. Gero eta uso gehiago dago Kontzezino inguruan, eta Udalaren esku-hartzea eskatu dute arazoari irtenbidea emateko. Elkarrizketa hori zapatu eta domeka goizean errepikatuko dugu, baita Fermin Muguruzari egin geniona ere. Arrasateko kontzertuaren harira, solasaldi oparo izan dugu kantariarekin. Zentsuraz zein iritzi duen azaldu digu Muguruzak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Isa Casado, mendizeharko eskalatzailea; Fermin Muguruzak; eta Jabi Arizabala. Kortatu taldeko tropeta jotzailea...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: merideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Anjel Alkain

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Joan den urteko MCCren balantzea

MCCk kaleratu berri duen prentsa oharrak Euskalit kalitaterako euskal fundazioak ematen dituen sarien gainean hausnarketa egiten du. Euskalitek iaz saritutako 27 enpresetatik 7 MCCkoak ziren. Soraluze, Fagor Etxetresna Elektriakoak eta Lagun Aro Aseguruak, industriaren eta zerbitzuen atalean; eta, Mondragon Goieskola Politeknikoa, Txorierri Politeknika Ikastegia, Lea Artibai ikastetxea eta CIM Hizkuntza Akademia, hezkuntza arloan.


Zazpi erakunde horiek Q saria jaso zuten iaz, Europako kalitaterako baremoak zehaztutako 400 puntuak gainditu eta gero.

Emunek badu 'Bai Euskarari' ziurtagiria

Joan den astean, Kontseiluak *Bai Euskarari* ziurtagiriak banatu zituen Donostian. Hiru ziurtagiri mota ematen ditu Kontseiluak, eta maila gorenekoa jaso du Arrasateko Emun kooperatibak. Emunek lan esparrua euskalduntzera bideratzen du jarduna; hortaz, argi dago ziurtagiria lortzeko ez dutela ahalegin berezirik egin. Egun, 600 enpresa baino gehiagok dute *Bai Euskarari* ziurtagiria. Emunekin batera, Antzuolako Elay enpresak ere jaso zuen ziurtagiri hori.

Gesalibarren gaizki ikusten dute telebista

Gesalibarko bizilagunek protesta egin dute, telebista gaizki ikusten dutelako. Jakin dugunez, Gesalibar osoan ez dute GOITB ikusten, eta TVE1, T5 eta A3 telebista kateak, berriz, zirriborotsu. Duela bi urtetik hona ikusten dute telebista horrela. Arrasateko Udaleko mantentze-lanen arduradunak GOITBri esan dionaren arabera, Udalean badute arazo horren berri. Arazoa da Gesalibarko zenbait etxebizitza Santa Atxeko errepikagailuaren azpian daudela, eta ez dutela seinalea behar den moduan jasotzen.



Kontzezinon, usoak arazo iturri

Kontzezino auzoko bizilagunen elkarteak kexa bat aurkeztu dio Udalari. Dagoeneko neka-neka eginda daude usoek sortzen duten zikinkeria eta zaratarekin. Diotenez, egiten duten zarata gauetan lo egiten ez uzterainokoa da. Udalak eman du erantzuna: ez dute neurri berezirik hartuko.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Berba egitea ezinbestekoa da

Astean Carod Rovirarekin gertatu denak bazter guztiak astindu ditu. Eta ez luke halako iskanbilarik eragin behar!

Dirudienez, Espainiako Gobernuak lehendik zekien Rovirak ETako zenbait kidekin batzarra egin zuela, baina berri hori une honetan azaleratu du. Susmagarria da oso gobernuak haren interesen arabera zelan

jokatzen duen. Agian, beste zerbait ezkutatzea gurako zuen. Zeinek daki!

Rovirak argi eta garbi azaldu du ETaren ekintzen aurka dagoela, baina konponbide bat lortu gura duela, eta horretarako berba egitea ezinbestekoa dela. Horregatik, egindakoagatik ez dela damutzen.

PPk eta Zapaterok gura dutena esango dute, baina

Rovirak arrazoia dauka. Berba egin ezean, ez da ezer konponduko. Eta bada ordua, konpontzeko!

Kataluniako hauteskunde emaitzek esperantza izpi bat eman ziguten euskaldunoi. Eta, orain, Esquerra Republicanako kideek egin dituzten pausuek ere zeresan handia ematen dabilta, beste batzuenak baino ausartagoak dira-eta. Ea gure artean ere ausardia eta benetako politikagintza eransten zaigun.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

HAUTESKUNDEAK GEROAGO ETA GERTUAGO DAUDE

Espainiako Estatuko hauteskundeak martxoaren 14an izango dira, baina dagoeneko hauteskunde usaina non-nahi dago. Alderdi politikoak jo eta su dabilta, badirudi beti dabilzala kanpainen. Are gehiago, hauteskundeak Espainiako Estatuan diren arren, Euskal Herriko kontuak beti dira protagonista.

Arrasateri dagokionez, dagoeneko jendaurrean dago hauteskundeetarako errolda. Udaletxepean ipini dute, eta astelehenera arte (otsailak 2) egongo da bertan. Komeni da zerrendari begiratua egitea, agertu ezean, ezin izango delako botorik eman. Erreklamazio epea astelehenean bukatuko da. /I.B.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762

GAZTEAK/Gaurtik, egubakoitza, hasita otsailaren 6ra arte ekintza mordoa antolatu dituzte

Herriko gazte taldeek, elkarlanean, ekintzaz betetako Gazte Astea antolatu dute

IKER BARANDIARAN

Herriko hainbat gazte taldek, Gazte Kontseiluan batuta, Gazte Astea antolatu dute. Gaur, egubakoitza, hasi eta otsailaren 6an bukatuko da. Umeendako, gazteendako eta nagusiendako ekintza mordoa antolatu dituzte. Astean egongo da zer egin!

Gaur, egubakoitza, hasiko da Arrasaten antolatu duten hirugarren Gazte Astea. Izan ere, hiru gazte aste horiek herriko gazte taldeek antolatu dituzte, baina tesuinguruak eta egoerak ez dira berak izan. Hain zuzen ere, lehenengoa AEDk eta AGAKOk bultzatu zuten; bigarrena Hitza eta Ekintza taldeak koordinatu zuten; eta azkenekoa, Arrasateko Gazte Kontseiluak antolatu du. Hirurek helburu bera dute: gazteen elkarlana bultzatzea.

ZER DA GAZTE KONTSEILUA?

2002ko maiatzean, Udaleko Gazte Saila herriko gazte taldeekin harremanetan jarri zen. Udalak gazteen beharrak zeintzuk ziren jakiteko bideak eraiki zituen, eta Gazte Kontseilua sortzen lagundu zuen.

Herriko hainbat taldek Gazte Kontseiluan bat egin zuten eta batzarrek egiten hasi ziren. Gutxi gorabehera hilean behin batzarren dira. Orain arte honako taldeek esku hartu dute, Gazte Astea antolatu duten berberak: AGAKO (gaztetxeko batzarra), Txatxilipurdi, Arraska skate taldea, Giza Izpi Alai, Besaide Gazteak eta AED Gazteak taldeek. Kontseiluan esku hartzen duten taldeek behin eta berriro azpimarratu dute ateak zabalik daudela edozein talde edo gizabanakori.

2003ko otsailean, behin Gazte Kontseilua guztiz eratuta zegoenean, kontseilua bera ezagutzera emateko logotipo lehiaketa antolatu zuten. Gazte eta ume askok hartu zuten parte, eta bi logotipo aukeratu zituzten: bata, umeendako; eta bestea, gazteendako. Logotipoarekin batera, honako leloa asmatu zuten: *Mila gazte, mila kolore*.

Ordutik gaur egunera arte ez dute bestelako ekintzarik antolatu. Orain dela hilabete batzuk Gazte Astea antolatzea erabaki zuten, eta horretan ibili dira burubelarra. Bestalde, Udal gobernua aldatu zenetik zinegotziek ez diote Gazte Kontseiluari jarraipenik egin, eta kontseiluak bere kabuz jarraitu du lanean.

Gazte Kontseiluaren helburu nagusia da herriko gazte taldeen arteko harremana eta elkarlana sendotzea. Hori, eta gazteen artean pasibotasunarekin apurtzeko beste eredu batzuk erakustea, hain zuzen ere. Kontseiluko kide



Arrasateko Gazte Kontseilua osatzen duten taldeetako ordezkariak prentsaurrekoa egin zuten osoko bilkuren aretoan.

diren taldeetako ordezkarien esanetan, azken urteotan taldeen arteko harremanak asko hobetu dira. "Gazte Kontseilua sortu genuenetik, beste edozertarako beste talde baten beharra dugunean, birritan pentsatu barik jotzen dugu laguntza eske", azpi-

marratu zuen Txatxilipurdiko ordezkari batek.

Gaur egun Udalarekin duten harremanari dagokionez, herriko beste edozein taldek Udalarekin duen antzekoa duela gaineratu dute. Ekintza batzuetarako dirua behar izan dutenean, eska-

tu egin dute. Horrez gainera, ekintza jakinetarako Udalarekin elkarlana egin dute. Esaterako, Gazte Astea antolatzeko orduan, Arrasateko Udaleko Sexologia Bulegoak lagundu die.

Gazte Astea antolatzearekin bat, herriko taldeen elkarlana

Arrasateko Gazte Kontseilua herriko hainbat gazte taldek osatzen dute. Ateak zabalik dituzte

Herriko taldeen arteko harremanak eta elkarlana sendotzea da horren helburua

Herriko ume, gazte eta nagusiendako kultura egitarau aberatsa antolatu dute

praktikara eraman gura izan dute. Gazte askok aste osoko egitaraua antolatzeko lan handia egin behar izan dute, baina azpimarratu dute astean, egunean egun, gazte askoren laguntza beharko dutela, eta horretarako besoak zabalik dituztela.

Antolatzaileen esanetan, orain antolatu dutena ez da izango egingo duten ekimen bakarra. Lanean jarraitzeko asmoa dute, eta herriko gazteen eta taldeen nahiak plazaratu gura dituzte.

Gaurtik hasita, ekintza mordoa antolatu dituzte

Gazte Astea antolatzeko batzarretan hasi zirenean, AGAKOko kideek Fermin Muguruzaren kontzertua antolatzea erabaki zuten. Azkenean, lortu dute, eta horren arabera, egitarauko gainontzeko datak finkatu dituzte.

Gaur, egubakoitza, Fermin Muguruza Kontrabandak Irungo musikariaren ibilbidea gainbegiratu du. Bi ordu baino gehiago egingo ditu eszenatoki gainean. Horrekin batera, Arrasateko Anger taldeak abesti berriak eskainiko ditu, eta Bilboko Irainak bertsioak egingo ditu. Musakolako kiroldegian izango da, 21:00etan. Txarteldegia 20:30ean zabalduko dute. 10 euro ordaindu beharko dira.

Bihar, zapatua, tortilla lehiaketa antolatu dute Herriko Plazan. Edozeinek esku hartu ahal izango du.

17:00etan, triki-poteoa hasiko da, eta 18:30ean, lehiaketako tortillak banatuko dituzte.

Domekan, umeendako, gazteendako eta nagusiendako puzgarriak eta tailerrak ipiniko dituzte Laubideko parkingean. 10:00etatik 14:00etara egongo da hor jolasteko aukera. Eguraldi txarra egiten badu, Uarkapen egingo dute. 18:00etan, Detraka taldeak kale antzerki ikuskizuna egingo du Seber Altube plazan.

Astelehenean, grafiti erakustaldia egingo dute Herriko Plazan, 17:00etan. Hara joaten denak grafitiak egiten ikasteko aukera izango du.

Martitzenean, makillaje artistikoaren erakustaldia eta argazki erakusteta antolatu dituzte. Aratusteetarako ideiak behar dituztenendako aproposa da ekimena. Harresi aretoan izango da, 17:00etatik 20:00etara.

Esku-orrian Monterronen izango dela ipintzen du, baina gaizki dago.

Eguaztenean, auzoetako umeek eta gazteek panelak margotuko dituzte, eskuekin. Musakolan, Santa Marinaran, San Andresen, Seber Altuben eta Iturripen. 17:00etan izango da.

Eguenean, Oihulari Klown taldeak drogen gaineko *Recoloclown* ikuskizuna eskainiko du gaztetxean, 17:30ean.

Egubakoitzean, auzoetan margotutako panelak Herriko Plazan erakutsiko dituzte, eta txistorra eta sagardoa banatuko dituzte, 17:00etan. Horren ostean, Getariako perkusio bandarekin kalejira antolatu dute.

Horrez gainera, aste osoan, *Sexologia eta argazkilaritza* izenburua duen erakusteta egongo da Monterronen. Egunero egongo da ikusgai, eta eguaztenean, zehazki, bisitaldi gidatuak antolatu dituzte.

POLITIKA/ Osoko bilkura

Biteri aparkalekua egiteko lanak esleitu zituzten astelehenerako osoko bilkuran

UBANE MADERA

Esleitu dituzte Biteri aparkalekua egiteko lanak. Aho batez onartu zuen proposamena udalbatzarrak asteleheneran. Hain zuzen, gai bera zela-eta, BBVAko dorreko zenbait bizilagun batzarrean izan ziren, lan handi horrek sor ditzakeen kalteengatik kezka azaltzeko.

Construcciones Bikani SL enpresak egingo du Biteri aparkalekua. 18 hilabeteko epea ezarri dute lanok egiteko.

Erabakia aho batez hartu zuen udalbatzarrak, eta, horren ostean, Jose Arana abokatuak hitza hartu zuen BBVAko bizilagunen izenean. Lan horrekiko duten kezka eta beldurra azaldu zioten udalbatzarrari. Sor daitezkeen arazoengatik. Lanok egiteko hartuko dituzten segurtasun neurriengatik galdetu zuten, arazoren bat sortuz gero zer gertatuko litzatekeen bizilagunekin... Besteak beste, jakinarazi zuten dorre horretan 32 familia bizi direla eta 110 metro koadroko etxebizitzak direla, herri erdian daudela, gainera. Hortaz, zerbait gertatuz gero, konponbidea ez zela erraza izango. Oro har, informazio gehiago eskatu zuten.

Agustin Ugarte zinegotziak, alkateak eta Hirigintza Saileko teknikari Juan Antonio Urdangarinek erantzun zieten bizilagunei, esanez lanak ahalik eta segurtasun neurririk handienekin egingo dituztela, eta lanon segimendua egiteko batzorde bat eratuko dutela. Edozelan ere, gaineratu zuten beti dela posible ezustekoren bat sortzea. Eta halakoei erantzuteko aseguru politikak dituztela hitzartuta; bata, bost milioi eurokoa.

Erantzun horrekin ez ziren gustura geratu auzokideak, bost milioi euro gutxi delakoan zerbait larria gertatuz gero. Alkateak erantzun zien aseguru horrez gainera Udalak baduela beste bat. Era berean, auzokideek onartu egin zuten Joseba Ugalde zinegotziak egindako proposamena: lanon jarraipen batzordeko kide izatea.

Gai horrekin bukatzeko, alkateak BBVAko bizilagunei esan zuten proiektua onartuta dagoela eta ahalik eta segurtasun neurri handienak erabiliko dituztela, baina proiektuak aurrera egin behar duela.

AUZO ALKATETZAK

Bestelako gaien artean, udalbatzarrak onartu egin zuen, legeak dioen moduan, orain arte Gobernu Batzordea izan dena, hemen dik aurrera Tokiko Gobernu Batzarra izango dela.

Horrez gainera, auzo alkateak ere izan ziren berbaagai astelehenerako batzarrean. Hain zuzen ere, puntu horretan, PSE-EEko



BBVA dorreko bizilagunek kezka azaldu zuten Biterin egin behar diren lanen eraginagatik.

Construcciones Bikani enpresak egingo du Biteri aparkalekua, 18 hilabetean

bozeramaile Paco Garciak salatu zuen oraindik ere zenbait alkatezta eratzeko daudela. Ignacio Lakuntza alkateak erantzun zion ahalegin guztiak egiten dabiltzala erdiguneko alkateak aukeratzeko prozesua bizkortzeko; eta espero duela hurrengo osoko bilkurarako eratuta egotea.

GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

Bestalde, Garaia Berrikuntza Gunearen gainean, desjabetze prozesuaren bigarren zatiarekin hasteko pausoa eman zuten zinegotziak. Kontua da, orain, Udalarekin hitzarmena lortu ez duten lurjabeen lurra-eta desjabetzen hasiko dela Udala. Gautxoritik gorako maldakoak, hain zuzen ere. Laster hasiko dira lur horien jabeei desjabetzeen jakinarazpenak bidaltzen. Edozelan ere, zerrenda jendaurrean ipini dute, udaletxean.

BOST MOZIO

Osoko bilkurarekin bukatzeko, bost mozio zituzten aztergai zinegotziak. Baina lehenengo San Josepe harrobiaren gaia landu zuten zinegotziak. Alkateak jakinarazi zuen San Josepe harrobiarekin duten hitzarmena luzatzeko proposamena zutela aztertzeko, baina, harrobikoek

Garaia egiteko desjabetze prozesuaren bigarren zatia hastear dago

azaldutako zenbait zalantza zirela-eta, gaia mahai gainean uzteko eskatu zuen. Hala egin zuten.

Mozioei dagokienez, denetarik izan zen. Hasteko, Ezker Batuak zera eskatu zuen: Eudelen aldaketak egitea ordezkari-tzari dagokionez, eta hauteskundeetako emaitzen araberakoa izatea ordezkari-tza hori. Ez zuten mozioa onartu, EAJren, EAren eta PSE-EEren kontrako botoengatik. Aralar eta PP abstenitu egin ziren.

Bestalde, EAJ-EA koalizioak egoera politikoaren gaineko mozioa aurkeztu zuen. Helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzea gaitzetsi zuten; elkartasuna adierazi zuten indarkeriaren eraginez bizimodu normala egin ezin dezaketenei; politikaren judizializazioa egitea gaitzetsi egin zuten eta ezadostasun osoa erakutsi zuten honako gai hauekiko: neurrigabeko atxiloketa ugariak; behin-behineko preso askok jasan dituzten tratu txarrak; euskal nortasunaren eta kulturaren alde bakean lanean dabilzanean kontrako erasoak; euskal presoek jasaten duten dispertsioa; eta dispertsio hori dela-eta presoek familiek jasaten duten sufrimendua. Mozioa onartu egin zuten, EAJ, EA (Javier Nafarra-

Aurkeztutako bost mozioetatik hiru onartu zituen udalbatzarrak, bata aho batez

te abstenitu egin zen) eta Aralarren aldeko botoekin. EB abstenitu egin zen eta gainerakoek kontra bozkatu zuten.

Bestalde, PSE-EEk herriko irisgarritasuna bultzatzeko programa egitea proposatu zuen, bereziki, Udaleko eraikinei dagokienez. Aho batez onartu zuten.

Eta, bukatzeko, Alderdi Popularrak bi mozio aurkeztu zituen. Batean, eskatzen zuten Eibar-Gasteiz autobidea egiteko ezarritako epeak bete ditzala Gipuzkoako Foru Aldundiak. EAJko Nestor Arana zinegotziak argitu zion atzerapena Arabako Foru Aldundiaren errua dela.

Bigarren mozioan, PPK jakinarazi zuen joan den abenduan egin zen babes ofizialeko etxebizitzaren zozketaren berri komunikabideen bitartez izan zutela, eta, jakina, ez zutela ekimenean parte hartzeko gonbidapenik jaso. Hala, salatu zuten udalbatzarrak hartzen dituen erabakiak ez dagozkiola ez alkateari ezta alderdi politiko jakineki; alderdi politikoek ordezkatzeko dituztela herritarrak, eta alkateari egingandakoaren gaineko esplikazioak eskatu zizkioten.

PPk eta PSE-EEk bakarrik bozkatu zuten mozio horren alde; hortaz, ez zuten onartu.

LABUR

Otsailean etorriko dira nortasun agiriak egitera

Jakinarazi digute otsailaren 19an etorriko direla Arrasatera nortasun agiriak egiten dituztenak; hortaz, halako agiriaren bat egiteko edo berri-tzeko beharra duenak ordura arte itxaron beharko du.

Hauteskundeetarako errolda ikusgai astelehenera arte

Asteleheneran ipini zuten, udaletxepean, martxoko hauteskundeetan botoa eman dezaketenen herritarren zerrenda. Datorren astelehenera arte (otsailak 2) izango da ikusgai. Zerrendan agertu ezean, ezin izango da botorik eman. Hala, norbaitek erreklamaziorik egin nahi badu, astelehenera arte dauka egiteko.

Otsailetik aurrera, autobus urbanoak prezio berriak

Leintz Garraioak enpresak erabaki ditu 2004rako prezioak. Udalak erabakitakoaren arabera, urtarrilean sartu behar ziren indarrean, baina enpresak erabaki du otsailaren 1etik aurrera egitea hori, bezeroei mesede egitearren. Honako hauek dira prezio berriak: txartel arrunta 0,70 euro; eta bono-busa 0,52 euro.

Udalak 3.000 euroko laguntza emango du sahararrendako

Sahararren alde Arrasaten abiarazitako kanpainaren barruan, oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrari proposatu diote haien alde elikagaiak batzeaz gainera, orain, 3.000 euroko laguntza ematea. Hain zuzen ere, batutako elikagaiak hara bidaltzeko kamioiak erosten laguntzeko izango da dirua.

Laster hasiko dira Aramaio errekan kolektorea ipintzen

Udaberri inguruan, Aramaio errekarra doazen ur zikinak batzeko kolektorea ipintzen hasiko dira. 18 hilabetez jardungo dute lanean. 5.300 metrotan ipiniko dute kolektorea, Gesalibartik hiltegi zaharreraino. Aramaio erre-kako ur zikinak Epelera eramatea da asmoa, han egingo duten araztegi garbitzeko. Zatika egingo dituzte lanok.



Torloju fabrika zaharrea beste bost edo sei olio biltegi egon daitezke lurperatuta.

ZERRAJERAKO KUTSADURA / Zianuro hondarrak agertu direla berretsi digute

Badabiltza torloju fabrika zaharra garbitzen

UBANE MADERA

Hasi dira Zerrajerako torloju fabrikaren garbiketa lanak egiten. Zerrajerako kudeatzaile Ignacio Viterik esan digunez, zianuro hondarrak daudela baieztatu dute Ekonor enpresakoek. Bestalde, jakinarazi digu bost edo sei olio biltegi daudela han lurperatuta.

Egunotan, jantzi berezi zuridun pertsonak ikusi ditugu Zerrajerako torloju fabrika zaharrea. Ekonor enpresakoak dira. Eta fabri-

ka zaharra garbitzen dabilta, lur haien jabeak hala aginduta.

Izan ere, eta aurreikuspenak betez, elementu kutsakorrek aurkitu dituzte han. Ekonor enpresak egindako hasierako analisiek erakusten dute zianuro hondarrak daudela han, lehen, galvanizatze-ko erabiltzen zituztenak. Amianto hondarrak badiren, berriz, ez digute konfirmatu, nahiz eta oraingo astean Eusko Jaurlaritzako IHOBE elkarteak esan han aurkitutako hautsa amiantoa dela.

Kontuak kontu, lehen esandako moduan, dagoeneko badabiltza

lurrok garbitzen, eta IHOBEk eta Zerrajerako zuzendari nagusiak ziurtatu digutenez, ez da inolako arriskurik izango herritarrendako. Elementu kutsakorrek oso leku zehatzean daudelako eta beharrezko segurtasun neurri guztiekin aterako dituztelako.

Behin hori eginda, makinak eta kenduko dituzte (batzuk erakusketa industrialerako izango dira), eta lur azpikoa garbitzen hasiko dira. Izan ere, Zerrajerako gainerako gunean moduan, torloju fabrika zaharrea ere olio biltegiak daude; guztira, bost edo sei.

Makina bat ikastaro antolatu ditu otsailerako Emakume Txokoak

U.M.

Emakume Txokoak antolatu du datorren hilabeterako egitaraua. Makina bat ikastaro izango dira aukeran, horietako asko berriak eta besteak jarraipenekoak. Ikastaro guztiak otsailaren 16an hasiko dira.

Datorren astean, otsailaren 2tik 6ra bitartean eman beharko du izena Emakume Txokoak antolatutako ikastaroetan parte hartu gura duenak. Otsailaren 16an hasiko dira ikastaro guztiak, eta ekainaren 18ra artekoak izango dira; lau hilabete, guztira. 20 euro

ordaindu beharko da, 10 euro langabeek. Honako telefono honetara deitu beharko da izena emateko: 943 79 41 39.

BERRIAK ETA ZAHARRAK

Denetarikoa ikastaroak antolatu dituzte. Batzuk lehenago hasitako ikastaroen jarraipena izango dira, baina beste batzuk berriak izango dira. Yoga, antzerki lanteria, musika terapia eta emakumea eta mitologia izeneko ikastaroak, adibidez, berriak izango dira. Jarraipena izango dute, berriz, orain arteko apaintzeko arteen gaineko eta dantza afro-brasilarren gaineko ikastaro-

ek. Hain zuzen, betiko egunetan eta ordutegian emango dituzte jarraipeneko ikastaro horiek.

Horrez guztiaz gainera, lantegi libreak ere antolatu dituzte; baita autoestimua erekin eta saltsarekin lotutako ikastaroak ere. Eta aurkezpen berezi bat antolatu dute otsailaren 26rako: bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako emakumeen Katxalin elkartea aurkeztuko dute.

KARTEL LEHIAKETA

Bestalde, martxoaren 8a gertu dagoela-eta, kartel lehiaketa abiarazi dute. Lanak otsailaren 16a baino lehen eraman beharko dira.

Meatzerreka auzoan San Baleixo jaiak ospatuko dituzte

U.M.

Gaur hasi eta domekara arte, San Baleixo zaindariaren omenezko jaiak ospatuko dituzte Meatzerrekako auzotarrak. Besteak beste, erromeria eta Mus Txapelketa izango dira, zapatuan.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan hasiko dira jaiak. Eta, lehenengo eta behin, auzokoek afaria egingo dute, dantza saio eta guzti. 21:00etan hasiko dira.

Gero, zapatu arratsaldean segituko dute jaiak. Hain zuzen ere, 15:30ean, umeendako eta gazteendako jolasak izango dira. Eta ordubete geroago, Gorritiren animaliak.

23. MUS TXAPELKETA

Apur bat nagusiago direnek, berriz, 17:00etan, Mus Txapelketa parte hartzeko aukera izan-

go dute. Elkartean jokatu dute txapelketa, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago eman beharko dira izenak. Gero, lau sari emango dituzte: aurrenekoei, 180 euro, txapelak eta trofeoak; bigarren gertzen direnei, 120 euro eta trofeoak; hirugarrenei, 75 euro; eta laugarrenei, 50 euro.

GAUEKOAK

Bestalde, zapatuan, baina gauean, Anaiak taldearen erromeria izango da. Eta 01:00etan, txerri harrapaketa. Haren ostean, txokolatada izango da.

Bukatzeke, domekan, 11:30ean, meza esango dute San Baleixo ermitan. Gesalibarko eta Garagartzako abesbatzak parte hartuko du. 13:00etan, txistulariek eta Lore Gazteak dantza taldeak saioa egingo dute. Eta 14:00etan bukatuko dira jaiak.

Utilek Uribesalgo itxi egin gura dutela salatu dute

U.M.

San Andres auzoan dagoen Utilek Uribesalgo lantegia itxi egin gura dutela salatu du hango Enpresa batzordeak. LAB sindikatuak bidalitako prentsa oharraren arabera, 2006an itxiko dute lantegia.

Hiru hilabetez ibili dira negoziatzen Utilek Uribesalgo enpresa eta Enpresa batzordea. LAB sindikatuak helarazitako ohar batek zera dio negoziazioen gainean: "Beti enpresaren etorkizuna ziurtatu eta langileen irteera traumatikoa ekidin nahian aritu gara".

Baina, orain, beste salaketa bat egin gura dute: enpresako buruek lantegia itxeko asmoa dutela. Hain zuzen ere, Enpresa batzordearen esanetan, enpresaren asmoa da hiru urte barru Utilek Uribesalgotik Arrasaten

duen lantegia ixtea, 2006rako itxita egotea. Hain zuzen ere, salatu dute enpresak aurrera egiteko beharrezko argudioarekin, dagoeneko bota dituztela 14 langile, aurretiko erretiroarekin.

Hori dela eta, Enpresa batzordeak jakinarazi gura du ez dutela halako beste kaleratzerik aurretiko.

IRABAZI HANDIAK

Era berean, salatu gura izan dute etekin handiak izan dituela Utilek Uribesalgo enpresak -1.000 milioi baino gehiago, LAB sindikatuaren esanetan-, baina orain ez dituela halakoak kontuan hartzen.

Gertatzen dabilen guztiak salatzeko, aurrera begira mobilizazioak egingo dituztela iragarri digute.

Gaur egun, 70 bat langile dabil Utilek Uribesalgotik Arrasaten duen lantegian lanean.

LABUR

Epailleak arrazoia eman dio Antonio Percas arkitektoari Udalaren kontrako helegitean

Bost urtez auzitegietan ibili ondoren, epailleak erabaki du Antonio Percas (Tito) arkitektoak arrazoia duela Arrasateko Udalaren kontrako jarritako helegitean. Kontua da 1998ko urrian Udalak kaleratu egin zuela Antonio Percas. Percas arkitekto plazarako azterketan guztiak gainditu zituen, baina, sasoi hartako Udal gobernua arkitektoak ez zuen gainditu Udalak langile guztiei ezartzen dituen frogaldia. Hala, kaleratu egin zuten. Hori dela eta, Percas arkitektoak dio langileari. Hala, arkitektoari kalte-ordainak eman behar izateko az gain, epailearen aginduz, arkitekto plaza bueltatu egin beharko dio Udalak. Orain, arkitektoak erabaki beharko du berriro Arrasate satera etorriko den; izan ere, Astigarragan dabil lanean.



ILUNTZ TABERNA BETETA LOS CRETINOS TALDEAK ZAPATUAN EMAN ZUEN KONTZERTUAN


Zapatu arratsaldean, Los Cretinos talde mondra-goetarrak goraino bete zuen Iluntz taberna. Giro aparta izan zen kontzertuan; rock-and-roll klasikoa atsegin dutenek ondo baino hobeto pasatu zuten. Euren abestiak jotzeaz gain, Rolling Stones, Ramones eta Johnny Thunders abeslariaren bertsio

ezagunak ere jo zituzten. Los Cretinos taldea orain dela urtebete inguru sortu zen. Aitorrek (bateria), Jaimek (gitarra, ahotsa eta harmonika) Ibaiek (gitarra eta koroak) eta Oierrek (baxua eta koroak) osatzen dute taldea. Orain arte bost kontzertu eman dituzte. Hurrengoa San Valentin egunean, Biona tabernan.



ZAPELATZA ALA BELATZA? ARGAZKIKO TXORIA GABIRAIA DA

Argazkiko txoria joan den egunean topatu zuten Arrasaten. Gaua Arrasateko Udaltzaingoa igaro eta gero, hurrengo egunean Donostiara eramane zuten, Igeldora. Han, txoriak berreskuratzeko zentroa dago, eta hango arduradunen esanetan, astebete barru txoria libre izango da. Eskuin hegoa erorita zeukan, baina ez zeukan zauririk. Igeldoko arduradunek azaldu zuten ze txori klase zen: gabiraia. Izan ere, txoria ikusi zutenek eztabaidan ibili ziren, zapelatza edo belatza izango ote zen. Badirudi ez zuela inork asmatu.



AGINDUTAKOA BETE DUTE: ALDIZKARIAK AMAITU ETA ARRASATE PRESS-ERA EKARRI DITUZTE

Orain dela hilabete batzuk, Arizmendiko San Viator guneko hainbat ikasle ARRASATE PRESSen izan genituen bisitan. Gure aldizkaria nola egiten dugun ikustera etorri ziren, eurak ere hainbat aldizkari egiteko asmotan zebiltzan-eta. Aldizkari horiek egindakoan ARRASATE PRESSera ekartzeko eskatu genien, egindakoa ikusteko asmoz. Eta baita ekarri ere!

Ondo egindako aldizkariak dira, oso orijinalak. Hainbat tarte egin dituzte: gurutzegramak, denbora-pasak, albisteak, argazki bitxiak... Horrez gainera, publicitatea ere landu dute. Nagusiagoak direnean ikusi beharko da kazetari izan gura duten. Oraingoz, behintzat, abiltateak badutela erakutsi dute. Zorionak eta, jakina, eskerrik asko, agindutakoa betetzeagatik.



ARRASATE PRESS

Eski estazioetako auto ilarek eta aglomerazioez ahaztu, eta iraupen eskiak elurraz gozatzeko aukera eskaintzen du.

ESKI NORDIKOA EDO IRAUPEN ESKIA

Besaidek iraupeneko eskia egiteko irteera antolatu du datorren asterako

Eski modalitate horrek gero eta jarraitzaile gehiago du, askatasun handiagoa ematen du-eta

XABIER URZELAI

Besaide Mendi Elkarreak eskiak eskaintzen dituen modalitate guztiak egiteko eskaintza zabaldu gura du. Eski alpetarraz eta mendiko eskiaz gain, Besaidekoek iraupen eskia egiteko irteera antolatu dute datorren asterako.

Belaguara joango dira iraupen eskia egitera, otsailaren 7ko eta 8ko asteburuan. Zapatu goizean irtengo dira, goizeko bostetan, eta itzulera domeka arratsaldean egingo dute. Irteera horretarako izena eman gura duenak otsaila-

ren 2an edo 3an Besaideren egoitzara joan beharko du, 19:30etik 20:30era bitartean. Gura duenak ikastaroa izango du, eta prezioaren barruan materialaren alokairua, aterpetzeko egonaldia eta eski irakasleak sartzen dira.

Irteeran esku hartzeko gutxi gorabehera 60 euro ordaindu beharko dira, eta izena ematerakoan erdia aurreratu beharko da.

ESKIAZ GOZATZEKO BESTE MODU BAT
Iraupeneko eskiak gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Azken urteotan jende asko animatu da eski alpetarra egitera, eta eski estazioak jendez beteta egoten dira.

Hori ekidin guran gero eta gehiago dira, askatasunaren eta lasaitasunaren bila, iraupen eskia egitera animatzen direnak. Jendeak ustean duenaren kontra, iraupen eskia egiteko ez da goi mailako kirolaria izan behar. Mendira joatea moduan, norberaren esku dago itzuli polit bat egin, edo osteratxo lasai bat egitea. Iraupen eskiak naturarekin bat egiteko aukera aproposa eskaintzen du, basoetan eta zuhaitz artean ibiltzeko aukera.

Horretaz guztiaz gozatu gura duenak, eski alpetarra baino askoz merkeago, gainera, datorren asteburuan du aukera aproposa.

XAKEA

Arrasatek berdindu egin zuen Barakaldon (2-2)

Arrasateko Xake Taldeak 2-2 egin zuen joan den aste bukarerako Barakaldoren kontra. Gainerako norgehiagoketan ere berdinketa asko izan ziren, eta irabazi zuenak ere ez zuen erraz irabazi, kostata baizik. Emaitza horiek argi erakusten dute maila horretan dagoen parekotasuna. Hala, sailkapenean bigarren postuan dagoen taldearen eta bederatzigarren postuan dagoen taldearen artean bi puntu eta erdiko aldea baino ez dago. Lehenengo mailako lider berria Rey Ardid taldea da, Calasanz taldeari 3-1 irabazi eta gero.

ATLETISMOA

Jonathan Perez bosgarrena pertika jauzian (4,70 metro)

Joan den zapatuan Anoetan jokatu zuten Espainiako Klub Arteko Txapelketan Jonathan Perez bosgarrena izan zen. Realean dabilen atleta mondragotarrak 4,70 metroko jauzia eginda eskuratu zuen bosgarren postua. Arrasatekoak pertika aldatu bazuen ere, ezin izan zuen 4,80 metroko jauzia egin. Gura moduko jauzia egin ez bazuen ere, orkatilan zeukan lesioak hobera egin du, eta hori ez da gutxi. Bestalde, aipatzekoa da Javier Mentxakak Lasarten egin zuen lasterketa. Beteranoa izanda seniorrekin korritu zuen, eta 32.a izan zen.

ATLETISMOA

Markel Blancok txapela eskuratu zuen Lasarten

Joan den asteburuan, Markel Blanco lasterkari gaztea lehenengo postuan helmugaratu zuen Lasarteko lasterketan. Arrasateko atleta gazteak kadete mailan korritu zuen, eta ehun metroko aldea aterazion bigarren helmugaratu zenari. Markel Blancok badauki Lasarten irabaztea zer den, infantil mailan korritu zenean ere lasterketako azkarrena izan zen-eta. Ikusmin handia sortu zuen Markelek, lasterketa ona egin zuen-eta. Oraingo asteburuan, Basaurin jokatu den Euskadiko Txapelketan hartuko du esku, mila metroko lasterketan.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

- Betrayer - Aloña Mendi 7-4
- Saukelu Scream - KPPC 1-0
- AT Celaya - Iriztu Taberna 3-9
- Rayo Aldeano - Billy & The Cowboys ... 3-4
- Bikain Akademia - You Know! 5-8

B MULTZOA

- AC Surcos - Lasagabaster 6-7
- Speed Boys - Dribling 5-6
- Tomahawk - El Ekipo A 5-3
- Errasti Kristaldegia - Goma-2 2-4
- Dream Team - Etxerat 6-7

PARTIDUAK

URTARRILAK 31, ZAPATUA. EPAILEAK

- 10:50: AC Surcos - Dribling. **Saukelu Scre.**
- 12:00: Saukelu Scre. - Alpargat-Est. **Dribling**
- 13:00: AT Celaya - You Know! **Alpargat.**
- 14:00: Aloña Tab. - Abokajarro. **You Know!**
- 15:00: Rayo Aldeano - Bikain Akad. **Aboka.**
- 16:00: Errasti Krist. - Dream Team. **Bikain.**
- 17:00: Tomahawk - Goma-2. **Dream Team**

OTSAILAK 1, DOMEKA

- 12:00: Speed Boys - Fuxion. **El Ekipo A**
 - 13:00: Lasagabaster - El Ekipo A. **Fuxion**
- Deskantsua: Iriztu Taberna, Etxerat, Betrayer, Billy The Cowboys.

SAILKAPENA

A MULTZOA

- | | P | J |
|-------------------------|----|---|
| 1. You Know | 14 | 9 |
| 2. Iriztu Taberna | 14 | 9 |
| 3. Abokajarro | 12 | 8 |
| 4. Rayo Aldeano | 12 | 9 |
| 5. Betrayer | 12 | 8 |
| 6. Aloña Taberna | 10 | 8 |
| 7. Saukelu Scream | 10 | 8 |
| 8. Alpargat Estutu!!! | 9 | 8 |
| 9. AT Celaya | 7 | 8 |
| 10. Bikain Akademia | 4 | 8 |
| 11. Billy & The Cowboys | 2 | 9 |
| 12. KPPC | 2 | 8 |
| 13. Koka Juniors. | 0 | 8 |

B MULTZOA

- | | P | J |
|--------------------------|----|---|
| 1. Etxerat | 16 | 9 |
| 2. Dribling | 16 | 9 |
| 3. AC Surcos | 12 | 9 |
| 4. Goma-2 | 11 | 9 |
| 5. Lasagabaster | 11 | 9 |
| 6. Tomahawk | 10 | 9 |
| 7. Dream Team | 8 | 9 |
| 8. Speed Boys | 8 | 9 |
| 9. Fuxion | 7 | 9 |
| 10. El Ekipo A | 5 | 9 |
| 11. Errasti Kristaldegia | 4 | 9 |
| 12. Whiskeria | 0 | 9 |

LEHENENGO FASEAREN AMAIERA, GERTU

KPPC TALDEA TXAPELKETATIK KANPORATU DUTE

Joan den asteburuko partidura ez agertzeagatik kanporatu dute antolatzaileek KPPC taldea. Ez da, baina, zigor bakarria izan. You Know! taldeko jokalariek batek partiduko bateko zigorra bete beharko du epaileari baloiekin jotzeagatik. Horrez gain, El Ekipo A eta Tomahawk taldeen arteko norgehiagokan izandako istiluetatik, El Ekipo A taldeko jokalariek batek bi partiduko zigorra bete beharko du, eta Tomahawk taldeko jokalariek batek partiduko zigorra.

Horrez gain, joan den astean jarri ez baguen ere, El Ekipo A taldeak talde moduan ere zigorra jasoko du. Txapelketan izena eman ez duten jokalariekin jokatu zuten, eta baita partidua irabazi ere. Norguegiagoka horretako puntuak kontrarioarendako izango dira. Horrez gain, lehenengo fasearen amaieran beste bi puntu kenduko dizkiete.

KIROLAGENDA

FUTBOLA

- Mondra - Touring**
Preferentea. Zapatuan. 16:15. Atxabalpen.
- Mondra - Aretxabaleta**
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
- Euskaluna B - Arrasate**
Big. Gazteak. Zapatuan. 18:30. Andoainen.
- Aldapetarrak - Arrasate**
Ohor. Kadeteak. Domekan. 12:00. Matigoxote.
- Urnieta - Arrasate**
Big. Kadeteak. Zapatuan. 15:30. Urnietan.
- Aurrera Ondarroa - Arrasate**
Infantilak. Zapatuan. 12:00. Ondarroan.
- Urki - Mondra**
Neskak. Zapatuan. 18:30. Unben.
- Aloña Mendi - Arrasate**
Neskak. Domekan. 11:15. Mintxetan.
- ESKUBALDIA**
AGR Arrasate - Leizaran Ernio
Lehen territ. Domekan. 11:30. Iturripen.

Hondarriria - Arrasate C

- 2. Territoriala. Domekan. 11:30. Hondartzan.
- Arrasate B - Groseko**
2. Territoriala. Domekan. 10:00. Iturripen.
- Aloña Mendi - Gatz Museoa Jakion**
Gazteak. Zapatuan. 19:30. Zubikoan.
- Usurbil - Gatz Museoa Jakion**
Kadeteak. Domekan. 11:00. Oiardon.

EMAITZAK

ESKUBALDIA

- Urola Agip - AGR Arrasate 30-21
- Arrasate C - Sanio Elgoibar 17-15
- Ereintza - Arrasate 28-15
- Urola - Gatz Museoa Jakion 38-15

ERRUGBIA

- Durango - Arrasate 8-23

ELKARRIZKETA

ISA CASADO/ MENDIZEHARKO ESKIATZAILEA

"Oraingo asteburuko proba izango da Euskadiko Kopako gogorrena"

ARRASATE IRRATIA / X.U.

Isa Casado mendi maratoietan lortu dituen emaitzen gaitik izan da orain arte albiste. Neguan, baina, mendiko botak alde batera utzi, eta eskiak hartu ditu. Mendizeharko eskia egiten dabil buru-belarri, eta Euskadiko Kopan hartuko du esku. Cautereten hirugarren postuan helmugaratu zen, eta Candanchuko gaueko proban ere hirugarrena izan zen.

Noiz hasi zinen mendizeharko eskia egiten?

Orain dela hiru urte hasi nintzen mendizeharko eskia egiten. Unibertsitatean nengoela txango bat antolatu zuten, eta probatzea erabaki nuen. Gustatu egin zitzaidan, eta materiala erostea erabaki nuen.

Lehenago, baina, pistetan eskiatuko zenuen.

Bai. Mendizeharko eskia egiten hasi aurretik komeni da pistetan apur bat ibiltzea. Azken baten, pistetan elurra egoera onean egoten da, zapalduta, baina mendian ez dago horrelakorik. Horregatik da komenigarria mendizeharko eskia egin aurretik eskiatzen apur bat jakitea.

Mendizeharko probetan esku hartu duzu, eta emaitza onak lortu dituzu, gainera.

Bai. Lehenengo proba Cautereten izan zen, baina eguraldi txarrraren ondorioz ibilbidea aldatu egin behar izan zuten. Proba hartan hirugarren izan nintzen, baita Candanchuko proban ere.

Candanchukoa, gainera, gauez egin zenuten.

Bai. 18:30ean hasi zen proba, baina orduan ere eguraldi txarra izan genuen, eta antolatzaileek ibilbidea aldatu egin behar izan zuten. Azkenean, eski estazioan egin genuen proba; polita izan zen, gauez ibili barik nengoan.

Bi proba horiek entrenamendu moduan hartu dituzu.

Bai. Oraingo asteburuan Euskadiko Kopa hasiko da, eta hori da nire helburua. Lehenengo proba Gavarnien izango da, eta seguru hori izango da proba gogorrena. Bi eguneko proba da, erlojupean egin beharrekoa. Lehenengo eguneko ibilbideak ia 2.000 metroko desnibela dauka. Bigarren eguneko ere erlojupeko proba da, eta bi egunotan azkarrena denak irabaziko du. Ikusi egin beharko da ze eguraldi egiten duen. Azken baten, Tallon mendira igo behar dugu, 3.000 metrora dagoena, eta eguraldi txarreakin ezingo dugu egin.

Proba horretara bakarrik joango zara, ala lagunekin?

Ez, Euskal Herriatik hainbat lagun joango gara, tartean, Oña-



ISA CASADO

"Ea ze eguraldi egiten duen, 3.000 metrora igo eta rappelak egin behar ditugu-eta"

"Mendizeharko eskia egiteko, ikastaroa egitea komeni da, kirol hori gustukoa den edo ez jakiteko"

tiko lagun batzuk. Aurten, lehen aldiz antolatu dute Euskadiko Kopa, eta Euskal Herriko 30 lagun gaude. Kopa horretako emaitzen arabera datorren urterako beste aukeraketa bat egin beharko dute.

Lau proba izango dira Euskadiko Kopan.

Bai. Lehen esan bezala lehenengo proba oraingo asteburuan izango da, Gavarnien. Bigarren proba Formigalen jokatuko da, hirugarrena Luz Ardidenen eta laugarrena Andres Regil proba izango da; edozelan ere, oraindik ez dakigu azken proba hori izango den.

Eta, zein asmo duzu Euskadiko Kopan?

Argi dago proba horietan

podiumean egotea oso zaila izango dela. Oraingo asteburuan, adibidez, Gavarniera Frantziako jende asko joango da; hortaz, lasterketa zaila izango da.

Zeharkaldiko eskia egiteko hainbat gomendio eskatu gura dizkizugu.

Lehenengo gomendioa ikastaroren bat egitea da. Mendi Federazioak horrelako ikastaroak antolatzen ditu, baita Besaidek ere. Ikastaro baliotsuak dira, kirol hori gustatzen zaizun edo ez jakiteko. Materiala, gainera, ez da merkea, eta hobe da erosi aurretik seguru egotea. Horrez gainera, eguraldiaren eta elurraren egoeraren berri jakitea ere komeni da; izan ere, horiek kon-tuan hartu beharrekoak dira.

Squashean, Sergio Galdeano Debagoieneko onena

XABIER URZELAI

Sergio Galdeano izan da Arrasateko Txapelketako eta Debagoieneko Masterreko onena. Arrasateko Txapelketa Gabon aurretik jokatu zuten, eta urtarrilean jokatu dute Debagoieneko Masterra.

Arrasateko Squash Txapelketan 18 lagunek eman zuten izena, eta abenduan izan ziren finalak. Finalerdietarako Sergio Galdeano, Garikoitz Ibartzabal, Jose Gorosabel eta Alberto Ferreiro sailkatu ziren. Galdeanoren eta Ibartzabalen arteko norgehiagokan, Galdeano nagusitu zen (3-0). Ferreirok eta Gorosabelek jokatu zuten beste finalerdia, eta Ferreiro izan zen hobe (3-1).

Finala Galdeanok eta Ferreirok jokatu zuten. Zeingehiagoka oso parekatua jokatu eta gero, Galdeano izan zen txapelketako irabazlea (3-2).

DEBAGOIENKO MASTERRA

Arrasateko Txapelketa amaitze-arekin batera, urtarrilean, Debagoieneko Squash Masterra jokatu dute. Masterra Aretxabaletako, Oñatiko eta Arrasateko txapelketetan puntu gehien eskuratu zituzten lehenengo zortzi sailkatuek jokatu dute. Zortzi

jokalariz osatutako txapelketa zenez, zuzenean final-laurdenak jokatu zituzten, eta hauek izan ziren emaitzak: Ibartzabalek 1-3 galdu zuen Ferreiroren kontra; Julen Iriondok 3-0 irabazi zion Haritz Gordori; Gaizka Oruna 3-0 nagusitu zitzaion Luis Mari Gordori; eta Iban Da Silvak 1-3 galdu zuen Sergio Galdeanoren kontra. Horrela, Ferreiro, Iriondo, Oruna eta Galdeano sailkatu ziren finalerdietarako.

Finalerdietan, Ferreiroren eta Iriondoren arteko lehian Ferreiro nagusitu zen (3-1). Beste finalerdian, Gaizka Oruna ez zen kontrarioa izan, Sergio Galdeano erraz nagusitu zen-eta, 3-0.

FINALEAN, GALDEANO HOBEA

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzean Iriondok eta Orunak elkarren kontra jokatu zuten, eta Oruna nagusitu zen (3-1). Debagoieneko Masterreko finala Arrasateko Txapelketako finala jokatu zuten jokalariek jokatu zuten: Galdeanok eta Ferreirok.

Arrasateko finala bezala, Debagoienekoa ere ezin parekatuagoa izan zen, eta hartan ere, Galdeano nagusitu zen (3-1). Sailkapen orokorrean, Sergio Galdeano izan da lehena, Garikoitz Ibartzabal bigarrena eta Julen Iriondo hirugarrena.

FOTOKIROLA



Ointxe Arrasatek bide onetik jarraitzen du

Ointxe Arrasatek orain arte ez du partidu bat ere galdu jaitseira fasean. Gorka Zurutuzaren mutilek 71-63 irabazi zioten joan den astean Kalagorri taldeari. Lehenengo laurdenean, talde mondragoetarrak alde polita atera zuen (20-10). Bigarren laurdenean, baina, errioxarrek markagailuko alde txikitu egin zuten (30-27). Hirugarren laurdenean, etxeok aurrera egin zuten, eta laugarren laurdenean erabaki zuten partidua. Garaipen horri esker, Gorka Zurutuzaren mutilak bigarren postuan daude. (X.U.)

FUTBOLA

Lehenengo zati ezin txarragoa eginda galdu zuen Mondrak Zestoan (3-2)

Lehenengo 30 minutuetan Zestoak hiru gol egin zizkion Arrasateko taldeari; hala ere, bigarren zatian, gutxigatik ez zuen Mondrak partidua berdindu

XABIER URZELAI

Lehenengo zatia amaitu aurretik hiru gol jasotzeak gauza asko esan gura ditu. Mondrak bazekien Zestoan kontrario gogorra izango zuela, eta hala izan zen. Lehenengo bi golak Mondrako en hutsegiteak aprobetxatuta egin zituzten. Hirugarrena, penalti jaurtiketa bati esker.

Aurtengo denboraldian gutxitan hasi du Mondrak partidua bat horren gaizki. Arrasateko taldeak ordu erdi behar izan zuen kontrarioari eta futbol zelaia txikiari neurria hartzeko. Ordurako, baina, zestoarrak 3-0 ziren aurretik.

Lehenengo bi golak Mondrak egindako hutsen ondorioz izan ziren. Zestoa argi ibili zen jokaldi horietan, eta Arrasateko jokalarien arteko gaizki-ulertzeak ondo baino hobeto aprobetxatu zituzten. Bolada onari eutsiz, Zestoako taldeak beste gol bat egin zuen, penaltiz.

BORROKA HANDIKO PARTIDUA

Non jokatu behar zuten jakinda, Zestoara hurbildu ziren jarraitzaileek argi zuten Zubiaurre futbol zelaian zer topatuko zuten. Uste bezala, futbol zelaia oso txarto zegoen, putzuz beteta. Egoera horretan oso zaila zen Mondra ahalegintzen zen moduan joka-



Mondrako eta Aretxabaletako neskek derbi parekatua jokatu zuten Atxabalpen. Aretxabaletarrak nagusitu ziren (0-1).

tzea. Zestoak, berriz, gauzak erraz egin zituen: ostikada eman eta aurrera korrika.

Lehenengo zatian errenta handia eskuratuta, zestoarrak lasai erretiratu ziren aldagelara. Bigarren zatiko hasierako minutue-

tan gauzak ez ziren askorik aldatu. Mondrak, baina, poliki-poliki gora egin zuen. Gol bat nahikoa zen partidua berdintzeko gauza zirela sinistarazteko. Eta Muruak egin zuen horren beharrezkoa zen gola (3-1). Gol horri esker, bai

Mondra eta baita Zestoaraino joandako Arrasateko jarraitzaileak ere berotu egin ziren. Arrasateko taldeak gogor ekin zion erasotzeari. Defentsaren lerroa aurreratu, eta arriskutsua zela jakinda ere Mondrak gora egin

zuen. Egia esan, Josu Zubiare mutilek gutxi zuten galtzeko Arrisku jokaldi gehienak esku naldetik egin zituen Mondrak. Horrelako jokaldietako baten erdiraketa bat ondo baino hobeto aprobetxatu zuen zelairatu berri zen Iker Lopezek. Hala, Mondrako aurrelari txikiak burua rekin ederto errematatuta egin zuen 3-2koa: indar txikiarekin iritsi zitzaion baloia, baina, ondo errematatuta, atezaina iritsi zen lekura bota zuen.

AZKENEAN, ZORTE TXARRA

Zelaian zeuden bi taldeez gain, epailea ere protagonista izan zen. Zestoako jokalaria bat kanporatu eta gero, Argiderrek ere aldagarako bidea hartu behar izan zuen, bigarren txartel horia ikusi. Horrez gainera, aulkian zeuden bi taldeetako jokalaria bana er zigortu zituen epaileak, Mondrako Pildo tartean.

Partidua amaitzeko bos minuturen faltan, Muxi-k baloia hartu eta etekin galanta ateratzen jokaldiari, epaileak penaltia adierazi zuen-eta. Berehala hartu zuen Muruak baloia, penaltia jaurtitzeko prest. Atezainak, baina, baloiaren norabidea asmatu eta ondo gelditu zuen penaltia.

Zeukan guztia emanda galdu zuen Mondrak. Ahalegin horietan lehenengo zatian egin izan balo tuzte...

Lazkanok, min hartuta, bertan behera utzi zuen partidua (10-22)

Ez zuen zapatu gozoa izan Aitzol Lazkano pilotari mondragoetarrak. Bestetan baino jende gehiago elkartu zen zapatu eguerdian Uarkapen. Lazkanok Euskadiko Txapelketako hirugarren partidua zuen jokoan, baina mondragoetarrak zorte txarra izan zuen, ezkerreko eskuan min hartu eta partidua bertan behera utzi behar izan zuelako.

Zorte txarra, eta jenio txarragoa, amorruari eusten ez jakiteagatik hartu zuen-eta min eskuan. Ondo hasi zuen Lazkanok partidua; kontrarioak indar handiarekin ematen zion pilotari, baina Arrasatekoak errazago amaitzen zuen tantoa. Alde txikiarekin, baina denbora guztian Mondragoeko pilotaria izan zen aurretik. Markagailuak 10-8 erakusten zuenean etorri zen zorigaiztoko jokaldia. Lazkanok ezker boleaz ematerakoan min hartu zuen sorbaldan. Tantoa jarraitu gura izan zuen, eta hainbat pilo-

Lazkanok partidu txukuna egin zuen, hamargarren tantoan min hartu zuen arte.

takada eman zituen. Kontrarioak pilota atzera bota, eta Lazkano, oraindik minez, airez sartu zen berriro ere. Pilotari bizkaitarrak bi pareta batekin erantzun zuen: tantoa galdu gura ez, eta arrasatearrak korrikaldia egin eta pilotara iritsi bazen ere, kanpora bota zuen.


ERREAKZIO TXARRA

Tantoa galtzeagatik haserre, Arrasateko pilotariak ezin izan zion amorruari eutsi eta golpe ede-

rra eman zion harmailaren ondoren dagoen egurrezko mahaiari; hortxe amaitu zen partidua. Lehen ere besoa minduta bazeukan, mahaiari emandako golpeak ez zion onik egin. Partidu asko jenio txarrarekin jokatzeagatik irabazten dira, amorrazioz kanxaratuta: zapatuan, baina, lagundu beharrean jenio txar horrek kalte egin zion Arrasateko pilotariari. Minutu batzuk aldagele-tan egon eta gero, jokatzen ahalegindu zen Lazkano, baina ezin. Eskuin eskuarekin bakarrik ezin da partidurik irabazi.

BIHURRITUA EZKER ESKUAN

Arrasateko pilotariak bihurritua du ezker eskuan, eta ezkerreko sorbaldan ere ez dauka behar den moduan. Datorren astean Euskadiko Txapelketako lehenengo faseko azken partidua jokatu beharko du, eta ordurako erre-kuperatzea da mondragoetarren helburua.



Airez sartu zenean, ezkerreko sorbaldan irten zitzaion Lazkanori.

MUSIKA/ Al-Andalus elkarteak antolatutako txapelketak izen handia hartu du

Bihar, zapatua, jokatu da Cante Flamenko Txapelketako finala Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Al Andalus elkarteak antolatutako II. Cante Flamenko Txapelketako finala egingo dute. 19:00etan izango da, Amaia Udal Antzokian, doan. Punta-puntako sei abeslari lehiatuko dira, eta Al Andalusko dantza taldeak ere hartuko du parte.

Aurtengoa bigarren aldia da Al Andalus elkarteak Cante Flamenko Txapelketa antolatzen duena. Txapelketa horrek geroago eta izen handiagoa hartu du, baita laguntzaile gehiago ere. Izan ere, lehenengo ediziotik bigarrena abeslarien maila asko hobetu da.

2003an hasi ziren txapelketako finalerdiak -lehenengoa azaroaren 29an jokatu zuten-, eta beste bi finalerdiak aurten egin dituzte: urtarrilaren 10ean eta 17an, hain zuzen ere. Al Andalus elkarteak Musakolan duen elkarte dotorean egin zituzten, eta ikusle asko batu ziren.

Horren harira, dagoeneko badakigu EAEko partaide one-

naren saria nork irabazi duen: Astrabuduako Paco Carrionek.

AMAIA ANTZOKIA BETE GURA

Eta gainontzeko irabazleak nortzuk izango diren erabakitzeko dago; horretarako, bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian lehiatu beharko dute.

Honako abeslariok hartuko dute parte: Carlos Arrabal (Kordoba), Jose Davila (Quintana de la Serena), Bartolome de Haro (Linares), Maria Jose Perez (Almeria), Montse Perez (Almeria) eta Pepe Larak (San Pedro Alcantara), hain zuzen ere.

Txapelketako finala 19:00etan hasiko da, eta abeslari bakoitzak hiruzpalau kantu abestuko ditu. Horrez gainera, Al Andalus elkarte dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du. Doan izango da, eta, kontuan hartuta lehenengo edizioan Amaia Udal Antzokia bete egin zutela, antolatzaileek beste horrenbeste lortzea espero dute. Gonbidapena egiten diete arrasatear guztiei.

Ea, bada, nork irabazten duen gitarra eta Portaloia batzen dituen trofeo dotorea!



Al Andalus elkarteari esker, gero eta flamenko-zale gehiago daude herrian.

ARTXIBOA

2004-2005



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

Haur Hezkuntza

0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza

2-6 urte



DBH

eredua **D**

TRADIZIOA / Santa Ageda bezpera

Eguaztenean, Santa Ageda bezperan, kantuan eta eskean ibiliko dira herrian

IKER BARANDIARAN

Tradizioak tradizio dira eta horiei eutsi egin behar zaie. Horregatik, urtero, Santa Ageda egunaren bezperan, Arrasateko hainbat lagun Santa Ageda eskean ibiltzen dira herriko auzo eta kaleetan. Kantuan egin eta behartsuendako dirua batzen dute.

Eguaztenean, otsailaren 4an, 50 bat lagun goizean elkartu, 08:00etan San Juan Bautista elizan meza entzun, eta kantuan irtengo dira. Aspalditik egin ohi duten bezala, bi taldetan banatuko dira: talde bat Musakola aldeara joango da eta bestea, erdialdera, San Andresera eta Bedoñara. 13:30ean, bi taldeek bat egin eta udaletxean abestuko dute. Horren ostean, Leintz elkartearen bazkalduko dute. Behin ondo bazkalduta eta indarberrituta, berriro bi taldetan banatuko dira: talde bat Erguenera joango da eta bestea erdialdean geldituko da, 19:30ak arte. Ordu horretan Monte tabernan bat egin eta Herriko Plazan denek batera abestuko dute. Horrela pasatuko dute eguna.

LAGUN GEHIAGOREN PREMIA

50 bat lagun ibiliko dira kantuan, gehienak gizonezkoak. Hala ere, taldean Goikobalu abesbatzako bospasei emakume ere badaude. Taldeko nagusienak 66 bat urte ditu eta gazteenak ia 40 urte. Nagusienak 50 bat urtean eusten dio Santa Ageda bezperako ohitura horri.

Egun horretan abestera irteten diren lagunek azpimarratu dute behin baino gehiagotan



Aspaldiko usadioa bizirik mantentzen laguntzeaz gain, behartsuendako dirua jasotzen dute abeslariak.

herriar gehiago batzeko gonbidapena egin dutela, eta bere horretan jarraitzen dutela. Primerako eguna pasatzen dutela diote, eta merezi duela horretan esku hartzea. "Euskal Herriko ohitura bati eusten lagundu, kantuan ibili, egun alaia pasatu eta beharra dutenendako dirua batzen dugu",

azaldu zигun abeslarietako batek, Jose Mari Menikak.

Taldeko kideen esanetan, arrasatearrek oso harrera ona egiten diete abeslariari. Ate guztiak zabalik izaten dituzte, eta irribarrea ahoan dutela hartzen dituzte. Hori baino gehiago, egun horretan diru mordo batzen

dute. Hain zuzen ere, euren esanetan, Euskal Herrian egun horretan kantuan diru gehien batzen duen taldea Arrasatekoa izango da, seguruenik. Joan den urtean, esaterako, 6.303 euro batu zituzten. Behin dirua jasota, Caritasen bitartez diru hori beharra dutenen artean banatzen dute.

Mañas-en 'Noviembre' eta 'Buscando a Nemo' animazio filma emango dituzte

I.B.

Amaia Udal Antzokiko filmen eskaintza sendotu egin dela dirudi, eta egubakoitzetik domekara jende dezente joaten da filmak ikustera. Asteburu honetan ere egongo da zer ikusi. Umeendako filma, behintzat, oso ezaguna da.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *Soñadores* filma emango dute. Bernardo Bertolucci zuzendari ospetsuak egin zuen, eta 68ko maiatzean dago girota. Ikasle hirukote batek sexu harremanak eta beste hainbat kontu bizi izango ditu historian zeresan handia eman duen garai zehatz horretan. Filmaren protagonistak honako

hauek dira: Michael Pitt, Louis Garrel eta Eva Green. Film hori 20:30ean emango dute.

Zapatuan, ez da zinerik egongo, beste ekitaldi bat dagoelako. Domekan, bi film emango dituzte. Bata, umeendako; eta bestea, nagusiendako. 17:00etan, *Buscando a Nemo* animazio filma emango dute. Andrew Stanton zuzendariak egin du. Pixar Animation estudioetan lan egiten du eta hau zuzendu duen lehenengo filma da. Gidoia Stantonek idatzi du, eta arrakasta handia izan du.

Film horretan *Nemo* arrain pailazoaren abenturak kontatuko dituzte. Arrain txiki hori eskolarantz doala, aitarengandik ihes egingo du, eta galdu egingo da.

Urpekari batek harrapatu eta dentista baten kontsultako arrainontzi baten sartuko dute. Bitartean, aita Nemoren bila joango da eta horrek ere abentura mordo bizi behar izango ditu.

Film horrek ospe handia hartu du, eta, diotenez, umeendako eta nagusiendako aproposa da. Horrez gain, *Monty Python's Flying Circus* filmaren erreferentzia asko dituela diote.

INGALATERRAKO KOMEDIAK

Askotan esan ohi dute ingelesak onenak direla komediak egiten. Eta egia da lan horretan maisuak direla. Zapatuan eta domekan, 19:00etan eta 22:00etan, eta astelehenean, 20:30ean, *Love actually*

filma emango dute. Richard Curtis-ek zuzendu du. Maitasun eta desamodio istorioak bizi dituzten era askotako hainbat lagun bizi izango dituzte, eta egoera oso bereziak partekatuko dituzte. Besteak beste, honako aktoreak izango dira protagonista: Hugh Grant, Emma Thompson, Rowan Atkinson -*Mr. Bean*- eta Billy Bob Thornton.

Datorren egubakoitzean, otsailaren 6an, *Noviembre* filma emango dute. Achero Mañas zuzendariak egin duen bigarren lan luzea da, eta gidoia ere berak idatzi du. *El Bola*-rekin arrakasta handia izan zuen. Kalem antzezlanak eskaintzen dituzten iraultzaile batzuen istorioa kontatuko digu.

LABUR

Martxoaren 8ko kartel lehiaketako azken egunak

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak abian jarri du 2004ko martxoaren 8ko kartel lehiaketa. Aurtengo Arrasateko emakumeen eskubideen aldeko egunak lelo hau izango du: *Martxoak 8 gure eskubidea delako!!!* Beraz, ezinbestekoa izango da kartelean lelo hori ipintzea.

Horma-irudi lehiaketak honako oinarriak ditu: edozeinek har dezake parte, berrin da nongoa den; kartelaren neurriak gehienez 50x70 zentimetrokoak izan beharko du; eta teknika librea izango da.

Irabazleak 800 euroko saria jasoko du (%20ko PFEZ-aren atxikipena izango du sari horrek), eta, Udaleko Emakume Sailak egoki ikusten badu, aurkeztutako kartel guztiakin erakusketa egin ahal izango du.

Lanak egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean lelo bat dutela aurkeztu beharko dira. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak ipini beharko dira. Kartelok 2004ko otsailaren 16a baino lehen Arrasateko udaletxera -Emakume Saila- bidali beharko dira. Epaimahaiaren erabakia lehenbailehen emanango dute aditzera.

Udaleko Kultura Saila Aratusteen kartel bila dabil

Arrasateko Udaleko Kultura Saila 2004ko Aratusteen egitaraua antolatzen dabil. Horrekin batera, herriko Aratusteen apaindu eta irudikatuko dituen kartelaren bila dabil. Kultura Sailak kartelaren lehiaketa antolatu du. Arrasaten bizi edo errolatutako edozeinek har dezake parte. Kartelaren neurriak 50x70 zentimetro izan beharko du, eta formatuak, nahitaez, bertikala.

Lana disketean aurkezteko aukera izango da edo DIN A-3 tamainako paperean inprimatuta. Teknika librea izango da, baina lanak derri gorrez 2004 Aratusteen Arrasate leloa izan beharko du.

Egindako lanak udaletxera -Kultura Saila- eramane beharko dira, otsailaren 4a baino lehen. Egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean leloa duela aurkeztu beharko dira. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak ipini beharko dira. Lehiaketako irabazleak 360 euroko saria jasoko du, eta lanaren eskubideak Udalak hartuko ditu.

E, TXO!

GUREGAIK/ UMEEN ETA GAZTETXOEN AISIALDIA

JESUS OLAIZOLA BIBLIOGRAFIKO BEKA

Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioak Jesus Olaizolarako beka deialdia egin du. Bekaren helburua da euskal bibliografiaren gaineko ikerketa egitea. Gai librea izango da, baina, betiere, euskal kulturarekin lotuta egon beharko du. Hamar hilabeterako beka izango da. Otsailaren 1era arte dago eskaerak aurkezteko epea. Informazio zabalagoa aurkituko duzue www.fsancho-sabio.es webgunean edo 945 14 78 00 telefono zenbakira deituta.

GIZARTE LAGUNTAILE POSTUA URRETXUN

Urretxuko Udalak Gizarte Ekintza eta Osasun arloari dagokion gizarte laguntzailearen lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa deitu du. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago, otsailaren hasiera arte.

UNIBERTSITATEKO IKASLE IZANDAKOEN IRITZIAK

Espainiako Estatuan egindako ikerketa baten arabera, unibertsitatean ibilitako eta gaur egun lanposturen bat duten hamar lagunetik bik diote ez lirakeela unibertsitatera itzuliko.

2000n ikasketak amaitu zituztenen artean egin dute ikerketa hori, eta, horren arabera, %10ek langabezian jarraitzen dute; %77k, berriz, lehendabiziko urtean aurkitu zuten lana; eta %71 pozik daude daukaten lanarekin.

GAZTE ASTEA HASIKO DA GAUR, EGUBAKOITZA

Arrasateko Gazte Kontseiluak Gazte Astea antolatu du. Hain zuzen ere, gaur hasiko da, eta otsailaren 6ra arte ekintza morda antolatu dituzte herria, ume, gazte eta nagusiendako.

Okendoko ludotekak bigarren urtebetetzeko jaia ospatu zuen

IKER BARANDIARAN

Joan den egubakoitzean, jai berezia ospatu zuten Okendoko ludotekak. Txatxilipurdik kudeatzen duen ludoteka horrek bi urte bete ditu, eta hainbat ume eta gaztetxo batu ziren urteurrena ospatzeko.

Joan den egubakoitzean, Txatxilipurdik jai berezia antolatu zuen Okendoko ludotekak. Ludoteka horrek bi urte bete ditu, eta ume eta gaztetxo askok erabiltzen du zerbitzu hori. Txatxilipurdiko haur saileko arduradun Elen Kortajarenaren esanetan, bi urteotako balorazio positiboa egiten dute. Izan ere, 134 bat ume eta gaztetxo daude matrikulatuta. Hala ere, Kortajarenak argitu digu 3 eta 8 urte artekoak asko direla, eta ia ez dutela nahiko leku. Horrez gainera, 9 eta 12 urte arteko umeen zelanbaiteko falta sumatzen dute.

TXOKOLATE-JANA ETA MUSIKA

17:00etan, Okendoko ludotekako erabiltzaile mordoak batu ziren.

*Txokolate-jana,
karaokea, txiste
kontaketa eta
dantza izan zituzten
ludotekako jaiak*

Begiraleek txokolatea eta mada-lanak banatu zizkieten, eta umeak eta gaztetxoek gustura egin zuten askaria. Edozelan ere, txokolatea ez zuten agortzen utzi, geroxeago Santa Marinako ludotekako erabiltzaileak ere jaitsi ziren-eta.

Egubakoitzean egin zuen eguraldi petralak lagunduta, Okendoko ludoteka lepo bete zuten. Umeak, gaztetxoak, begiraleak eta gurasoak batuta, han ez zegoen beste inorendako lekurik.

Behin sabela beteta, eta Santa Marinako ludotekako erabiltzaileak ere jaira batuta, ikusizuna hasi zuten. Txatxilipurdiko



Ume eta gaztetxo mordoak batu ziren, eta, besteak beste, txokolate-jana egin zuten.

hainbat kidek, ohi duten moduan, karaokea egin zuten, eta ume eta gaztetxo askok esku hartu zuten, euren gustuko kantuak abestuta.

Horrez gain, ume batzuek txistek kontakatu zituzten, eta neskatila batzuek Little Richardsen

Tutti Frutti kantu ezaguna dantzatu zuten.

Jaia luantzerako arte luza zitekeen, baina ludotekak ordutegi zehatza dauka, eta 19:30ean gutiak etxera joan ziren. Hurrengo urterako arte!

Sasoi honetako aisialdi ekintzak egiteko Gazte Bulegora jo dezakezu informazio bila

I.B.

Negu sasoiak, gazte eta nagusi askok euren aisialdian bi ekintza nagusi egiten dituzte: eskiatzea eta sagardotegietara joatea. Askok eta askok Gazte Bulegora jotzen dute horien gaineko informazio bila.

Ezagun da Arrasateko Gazte Bulegoak gai askoren gaineko informazioa duela. Edozeinek, gazte zein nagusi, hara jo dezake eta ikastaroen, bidaien, dirulaguntzen eta beste hainbat gai-

ren gaineko informazioa eska eta kontsulta dezake.

Denetako informazioa dute, eta sasoiak sasoiak gaiekin espezializatuta daude. Hain zuzen ere, garai honetan, lagun askok eski kanpainaren gainean galdetzen dute, eta batek baino gehiagok sagardotegien gainean duten informazioa ere kontsultatu du.

ESKI IKASTAROTAKO DIRULAGUNTZAK Neguan, Besaide mendizale taldeak astebururo Formigalera txangoak antolatzen ditu. Zapa-

tuan, 05:00etan joaten dira, eta domeka iluntzean bueltatzen dira. Besaiderekin joanez gero, prezio barruan forfaitak, pensio erdiko ostatua hoteletan eta garraioa sartzen dituzte.

Horrez gainera, lau orduko eski ikastaroa egiteko aukera dago. Gura izanez gero, Arrasateko Udaleko Gazte Sailak ikastaro horrek duen kostuaren erdia ordaintzen du. Horretarako, Gazte Bulegoan agiri bat bete behar da, eskaera egiteko. Hain zuzen ere, ezinbestekoa da arrasatearra izatea, eta langabea edo ikas-

lea. Hala ere, denboraldi bakoitzean, urtariletik Aste Santua bitartean, behin bakarrik eskatu ahal da. Urtero, 80 bat lagunek eskatzen dute ikastaro horretarako dirulaguntza.

SAGARDOTEGIEN SASOIA ERE BADA

Kirolaz gain, gazteek beste gauza batzuk ere egiten dituzte. Esaterako, geroago eta lagun gehiago joaten dira sagardotegietara. Gazte Bulegoan sagardotegien gaineko gidak eta autobus enpresen telefonoak dituzte. Batek baino gehiagok jo du bertara.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

BEHEKODENDATIK

Iban Onandia

ONANDIA PASTELERIXIE

XABIER URZELAI

Entrebistie egitteko bada be, goiz partien pastelerixa batera juetie peligrasue izeten da, usein ederra egoten da-eta. Lanien ebillela egin dutzegu entrebistie Ibanei. Sukaldari lanetan leku askotan ibilli eta gero, azkeneko hiru urteik Onandian egin ditte, pastelero.

Ze eskaketan dutzezu 2004ei?

Betik esaten dogune; osasun ona, eta holakuek.

Eta, juen barri dan urteie ze faltau izen jako?

Ez jako gauza haundirik faltau izen; urte ona izen da.

Ze falta jako Mondragueri?

Gaztiendako gauza gehixau. Jentie Gasteizera jueten da, eta hori tristie da.

Eta, ze dauko ona?

Parkiek ondo zainddute dauzela.

Ze falta jatzu zeuri?

Dirue.

Eta, ze dauketzu sobran?

Lana.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Four rooms / ¿Quién se ha llevado mi queso? / Musika latinue gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?

Surfa egittera.

Zeure ustez, zein da etxeok

lan gorrotagarrixena?

Egitten dotena ala ez dotena egitten?

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Tranpan ibiltteko neskie biher.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Urune.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskal Herriko egoera politikue konpondu egin dala.

Zerk arduraketan zau?


Lanak.

Eta, zerk poztu?

Lagunek.

Asteburue pasetako leku on bat?

Biarritz.



XABIER URZELAI

“Mondragueko adokiñak die gure espezialidadie, baiñe gainontzeko pastelak be ondo saltzen die”

Zein da Onandiako espezialidadie?

Mondragueko adokiñak.

Eta, jentiek ze eskaketan dau gehixen?

Danetik apur bat. Adokiñak ondo saltzen die, baitte pastel txikiñek be. Tartak be saltzen dittugu, eta baitte bollerixie eta txokolatie be. Danetik apur bat.

Zeuk jaten dozu pastelik?

Bai, baiñe ez lanien nabillien; gaba partien jaten dittut, etxera jueten nazenien.

Egun dana pastel artien, kantsau egingo dau ba...

Ezizu pentsau, neu ez naz kantsetan.

Eskaparate ikusgarririk egi-

“Egun hauetan, San Blas opilla asko eskaketan dau, eta horretan be hasi gare lanien”

tten ditzuzue.

Azkenaldixen anaiek eta bixok ez dogu denpora larregi euki, eta ez dogu gauza haundirik egin. Kur-silluetan ikesi geuen txokolatie moldeau eta horrekin irudixek egitten.

Pastelerixan noix egoten da jente gehixen?

Atsalde partien, esango neuke. Pastelak egitten gabitzenok goixien egitten dogu lan haundixena; kafeterixan dauzenek, atsaldien.

San Blas egune datorrela-eta, hasiko zitzien opillak egitten, ala?

Bai, egun hauetan, jentiek asko eskaketan dau San Blas opillie, eta horretan be bagabitz.

NIREBIDAIAHURA/ Jaime Epelde

Vietnam / 2003ko urrian

Hego Amerikara edo Vietnamera joan gura, baina erabaki ezinda zebilen Jaime. Azkenean, inguruko lagunuen eta ezagunen gomendioz erabaki zuen Vietnamera joatea, eta ez da damutu. Hilabete egin zuen Jaimek Vietnamen, eta, bere esanetan, beste astetxo bat ere gustura egingo zuen bertan: “Vietnam ezagutzeko hilabete ez da denbora luzea. Nik aste bat igarri nuen faltan, gehienbat Vietnamgo erdialdean dauden mendiak ikusteko.

Bidaia iparraldetik hegoaldera egin zuen Jaimek: “Vietnamgo hiriburura iritsi nintzanean, Hanoi bizi-bizirik dagoen hiria dela ikusi nuen. Han ez dago auto askorik, baina milaka moto daude. Hasieran beldurra ematen zuen kalea gurutzatzea, baina azkeneko ohitu egin nintzen”. Kontatzeko moduko gauza asko ikusi zituen han: “Goiz baten, goizeko bostak aldera hiriaren erdialdean dagoen laku batera joan nintzen. Jende mordoa zegoen gimnasia, yoga edo dena delakoa egiten. Jende multzo asko zeuden, eta talde bakoitzak gauza ezberdinak egiten zituen. Eta, goizeko bostetan!”.

Jaimek berehala egin zituen

lagunak: “Lagun talde bat elkartu ginen, gutxi gorabehera bidaia bera egiteko asmoarekin, eta elkarrekin egin genuen hilabetea”. Hanoitik kostalderako bidea hartu zuten Jaimek eta lagunak: “Bagenekien leku asko turistentako prestatuta dauden bidaiekin ikusi beharko genituela, eta horrelako bidaia antolatu baten joan ginen Halong Bayra. Paraje ikusgarria da Halong Bay, itsasontzian ibiltzeko aproposa. Lau egun egin genituen han, eta gau bat itsasontzian pasatu genuen”.

Halong Baytik barrualdera itzuli ziren Jaime eta lagunak. Iparraldeko mendiak bisitatzea merezi duela-eta, asmo horrekin bueltatu ziren. Hiru egun inguru egin zituzten mendietan, alokatutako motoekin, eta, jakina, baimen barik. Han ere izan zuten anekdotarik, baina datorren astean izango duzue horren berri.

XABIER URZELAI



Halong Bay, Vietnamgo ipar-ekialdean.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



Argazkian, Julia Bravo eta Julian Azpitarte, Uribarri elkartearen omenaldian esku hartu zuten bazkide nagusienak.

80 urtetik gorako 27 lagun omendu zituzten Uribarri elkartearen

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Uribarri erretiratuen elkarteak auzoko nagusienak omendu zituen. Aurretik, elkartearen bazkide diren 80 urtetik gorako lagun guztiei bazkaltzera joateko gonbidapena egin zieten. Batzuetan, halako adineko lagunekin azkeneko ordura arte ez dago jakiterik esku hartuko duten edo ez; izan ere, osasun arazo handiagoak izaten dituzte eta ezin izaten dute gura duten beste irten. Dena dela, joan den egunean, azkenean, 27 lagun elkartu ziren Uribarri elkartearen bazkaltzeko, eta lagunarteko giro aparta izan zuten.

Eguerdi partean bat egin zuten, eta elkartearen arduradunek lagunak, mahaiaren bueltan bazkari ederra zerbitzatu zieten. Menua ez zen edonolako izan, ez horixe: besteak beste, urdaiazpikoa, Yorkeko urdaiazpikoa, arrain zopa, erredondoa, kanutotxoak, kafea eta kopak hartu zituzten. Esan beharrik ez dago bapoz bazkaldu zutela; gainera,

apetitu handia erakutsi zuten mahaiaren bueltan batu zirenek. Bazkariaren ostean, opariak banatzeko unea heldu zen. Elkartearen batutako guztiek jaso zituzten opariak.

Hala ere, eguneko protagonista nagusiak honako hauek izan ziren: Julia Bravo eta Julian

Azpitarte, hain zuzen ere. Bi lagun horiek omenaldian esku hartu zuten elkartearen bazkide zaharrenak dira. Julia Bravok 88 urte ditu eta Julian Azpitartek, 87. Biek hala biek 30 urte baino gehiago daramatzate Arrasaten bizi izaten. Izan ere, Azpitarte Bizkaian jaio zen eta Bravo jaiotzez nafarra da.

BESTE 10 URTE BETETZEKO ILUSIOA

Behin bazkaldu ondoren, auzoko omenduen tertulian igaro zuten arratsaldea, elkartearen arduradunak eta senitarteko batzuk lagun zituztela. Han batutakoaren esanetan, urteko omenaldi hori aitzakia bikaina da urtetan edo denbora luzean elkar ikusi bari-ko auzotarrak berriro ikusteko. Eta hori nabaria izan zen, guztiak oso gustura ibili zirenean.

Julia eta Julian, biak hala biak, osasuntsu aurkitu genituen, eta oso pozik, gainera. Julian Azpitartek GOITBko kazetari-ekin berba egin zuen, eta zera esan zien, beste hamar urte gustura hartuko lituzkeela, hain zuzen ere. Ea horrela den!

Opariak jaso baino gehiago

Joan den egunean, Uribarri erretiratuen elkartearen batutako 27 lagunak oso gustura izan ziren. Guztiek opariak jaso zituzten. Horien artean, Julia Bravori eta Julian Azpitarteri opari bereziak eman zizkieten.

Erretiratuek -gehienok bezala- opariak oso gustura jasotzen dituzten arren, oso gustura izan ziren aspaldiko lagunekin bat egin zutelako.

LABUR

Uribarri erretiratuen elkarteak apirilaren 19tik 23ra bitartean, honako zonak bisitatuko dituzte: Salamanca, Trujillo, Jerteko ibarra, Caceres eta beste batzuk. Txangora joateko 240 euro ordaindu beharko dira, baina hasiera baten 50 euro ordaintzea nahikoa da. Izenematea zabalik dago, eta martxoaren 10ean bidairako txartelen zozketa egingo dute.

Uribarri erretiratuen elkarteak bazkideek urteko kuota ordaintzeko epea zabaldu du. Kuota 5 eurokoa izango da, eta bulego ordue- tan ordaindu beharko dute, hau da: martitzenetan edo eguenetan, 18:00etatik 20:00ak bitartean. Abaroa elkartearen bazkideek ere ordaindu beharko dute urteko kuota. Kuota 5 eurokoa izango da, eta otsailaren 19a aurretik ordaindu beharko dute.

Abaroa eta Uribarri erretiratuen elkarteek urteko kuota ordaintzeko epea zabaldu dute

Uribarri erretiratuen elkarteak bazkideek urteko kuota ordaintzeko epea zabaldu du. Kuota 5 eurokoa izango da, eta bulego ordue- tan ordaindu beharko dute, hau da: martitzenetan edo eguenetan, 18:00etatik 20:00ak bitartean. Abaroa elkartearen bazkideek ere ordaindu beharko dute urteko kuota. Kuota 5 eurokoa izango da, eta otsailaren 19a aurretik ordaindu beharko dute.

Toki Argikoek hainbat jarduerak dituzte Italiara joan aurretik

Santa Marinako Toki Argi elkarteak Italiara bidaiari antolatu du. Martxoan, 104 erretiratutako Italiako hainbat hiri bisitatuko dituzte, zortzi egunean.

Bidaiari hain tentagarria izanik, Santa Marinakoez gain, herriko beste auzo batzuetako erretiratuek ere eman dute izena. Joan den egubakoitzean, batzarra egin zuten, eta Toki Argiko batzarra bidaiari azkeneko ukituak ematen dabil. Segurue-

nik, otsailaren bukaeran beste batzar bat egin beharko dute.

Bestalde, otsailaren 3an, Abadiñora txangora antolatu dute. San Blas eguna izanik, Abadiño-ko azoka bisitatuko dute, eta horren ostean, Gatikako Lur Gatika jatetxean bazkaria egingo dute. Bazkalostean, dantzaldia antolatu dute. Interesatuak astelehena baino lehen eman beharko dute izena Toki Argiko bulegoan. 20 euro ordaindu beharko dituzte.



Toki Argin hainbat ekintza antolatzen dituzte. Oraingoan, bidaiari egingo dute.

Aretz
Taberna
Markole 5
943 79 14 67
ARETXABAETA

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
Olarre kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ESKORIATZA ERRETEGIA
Tfn 714345
MENDIOLA
Bazkari eta afariak
Asteleheneretan itxita
ESKORIATZA



OÑATI
Angel Mari Zumalde
Urtarrilaren 31n, 32 urte.
Zorionak! Muxu handi bat, Sararen partetik.



ARRASATE
Eider Prieto
Urtarrilaren 26an, 1 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Maider Garcia
Otsailaren 7an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maider Murua
Urtarrilaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, Andra! Koadrilakoak.



ARRASATE
Leire Ancin
Urtarrilaren 27an, 5 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Txomin Frutos
Otsailaren 4an, 1 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARAMAIO
Luis Caverio
Urtarrilaren 28an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Anartz Eraña
Otsailaren 3an, 1 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Peru Bengoa
Otsailaren 3an, 3 urte.
Zorionak! Senide guztien partetik.



ARRASATE
Gorka Eraña
Urtarrilaren 29an, 13 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Leire Eraña
Otsailaren 2an, 11 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Unai Okina
Urtarrilaren 26an, 13 urte. Zorionak! Etxeko partetik.

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zer dago faltan edo zer soberan oraingo asteko argazkian?
Arrastoa: orain dela gutxi aldatu dute inguru hura.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kas limoia edo laranja
33 cl

0,26€ 43 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LUKAS BERGARETXErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Lukas!

Galderen erantzun zuzena:

Larrea baserria; lehen, Zopasena.

*Aurreko asteko arrastoa esan genuen Larrea baserria existitzen dela. Ez da hala. Etxebizitzak egin zituztenean bota zuten (1992an, gutxi gorabehera). Barkatu eragozpenak.

ARRASATEKOHISTORIA

Okendotarren omenez, Okendo kalea dago Arrasaten

'MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

O talora eta Mondragones kaleen artean dago Okendo kalea, Ferixaleku inguruan.

Kale horrekin, Okendotar aita-semeak omendu gura izan zituzten; gipuzkoar marinela ziren haiek. Iturriotz kalean eta Maala kalean (Okendo etxea, 1600etik aurrera) familia haren armariak daude. Leintz Gatzagan bizi izan ziren aurreko herritarren ondorengoak ziren Mondragoeko Okendotarrak eta gainerakoak.

Arrasateko Okendotarren artean, nabarmentzekoa da On Bixente Amos de Okendo Zabaleta Gipuzkoako diputatua izan zela 1863tik 1865era. Baita Isabel Katolikoaren komendadorea ere.

Gainerako Okendotarren artean, aipatzekoa da, adibidez, Antonio Okendo. Haren omenezko estatua bat dago Donostian.

Almirantea izan zen Antonio Okendo. 16 urterekin sartu zen marinela. Mediterraneoan piraten aurka jardun zuen. Eta 20 urte bete aurretik Felipe II.aren ofizial izatea lortu zuen. Mediterraneoetik Espainiaratu

*Marinelak ziren
Okendotarrak,
Gatzagako aurreneko
herritarren
ondorengoak*

*Antonio Okendok
itsasontzi
bakarrarekin aurre
egin zien
holandarrei*

zenez, piraten kontra egiten segitu zuen, Portugalgo kostaren inguruan. Laratzeko konkistan ere ibili zen.

Borroka askotan parte hartu zuen Okendok. Baina ezagunena Holandako kostaldekoa izan zen. Galdu egin zuen borroka hura, baina kemen handia erakutsi zuen: holandarrek 114 itsasontzi zituzten; donostiarrek, 21 besterik ez. Banan-banan



UBANE MADERA

Ferixaleku inguruan dago Okendotarren omenezko kalea, azoka plazatik gertu-gertu.

suntsitu zituzten donostiarren itsasontziak, bakarra utzi arte, kapitainarena. Hark, holandarren itsasontzi guztiak aurrean zituela, itsasontziko belak jaistea agindu zuen, eta borroka-

rako prestatu zen. Holandarrek abordatzen ahaleginu ziren, hiru itsasontzik bat eginez, baina Okendok aurre egin zien. Are gehiago, kontra ere egin zien, eta holandarrek atzera egin

behar izan zuten.

Hori bai, Okendori aurpegi-ratu egin zioten itsasontziak galdu zituela, eta, gainera, gaixorik bueltatu zen. Handik gutxira hil zen, Coruñan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urtarrilaren 30a / 94. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Espainiako txapelduna, Olinpiar Jokoei begira

UBANE MADERA

Seigarren urtez Espainiako Txapelketa eskuratu du Maider Unda borrokalari oletarrak. Orain, Atenasko Olinpiar Jokoei begira dago; laster jokatu du sailkatzeko txapelketa.

Espainiako txapeldun. Aurten ere egin du oletarrak. Gijonen jokatu zuten orain dela gutxi borroka libreko emakumezkoen liga, eta hantxe eskuratu zituen Maider Undak txapeldun izendatzen duten domina eta diploma, seigarren urtez.

ATENASTIK ZILARREZKO DOMINA

Hala, bada, badirudi ondo asko osatu duela belauneko lesioa. Kontatu digunez, udan egin zioten bigarren ebakuntza, eta uda osoa errehabilitazioan egin du, oso gogor. Eta orain dabil ahalegin horren fruituak batzen. Izan ere, joan den asteburuan Atena-

sen izan da, Olinpiar Jokoen simulazio batean parte hartzen. Handik zilarrezko domina ekarri du Euskal Herri aldera. Hori lortzeko, Frantziako eta Austriako ordezkarien kontra borrokatu behar izan zuen lehenengo Maider Undak. Biei irabazi zien. Eta finalerdirako sailkatu zen.

Gero, Errusiaren kontra jokatu zuen finalerdia, eta hari ere irabazi egin zion. Baina azkeneko borroka galdu egin zuen, Japoniaren kontra.

Kontuak kontu, zilarrezko domina irabazi zuen. Eta, gaine-

ra, Errusiari irabazten dion aurreneko aldia da. Hala, garai-pen garrantzitsua lortzez gain, Maider Unda oso pozik dago emaitzarekin, berak izandako moduko lesio batekin halako garaipen handia lortzeagatik.

POLONIA, ETA GERO TUNISIA

Madriren da orain Maider Unda. Hiru aste barru Polonian nazioarteko txapelketa jokatu du. Eta gero, martxoaren hasieran, Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko txapelketa izango du aurrez aurre. Tunisian izango da hori. Han, hiru lehiakide sailkatuko dira Olinpiar Jokoetarako.

Hala ere, Tunisian lortzen ez badu, martxoaren bukaeran beste aukera bat izango du, Madriren. Olinpiar Jokoetarako beste hiru lagun sailkatuko dira han.

Japonia, Txina, AEBak, Alemania eta Bulgaria sailkatuta daude. Ea Maiderrek ere lortzen duen zerrenda horretan sartzea.

Atenasen zilarrezko domina irabazi du, Olinpiar Jokoen simulazio batean


Kultura etxeko itoginak laster konpontzekotan

U.M.

Geroago eta larriagoa da kultura etxeko egoera. Lehena-gotik zeuden itoginak areagotu egin dira asteburuko euri zaparraden ostean. Batez ere bi gela daude kaltetuta.

Hasieratik izan ditu kultura etxek hezetan arazoak. Baita itoginak ere zenbait lekutan. Hain zuzen ere, kultura etxea egin zuen enpresa bera (Palmiro) orain dela hilabete ahalegindu zen hori guztia konpontzen. Baina, asteburuko zaparraden ostean, kultura etxearen egoera lehengo baino eskasagoa da: KZgunean zeuden itoginak handitu egin dira; eta ondoko gelan, ingelesekoan antzerako itoginak sortu dira; astelehenean, oraindik ere, ura jausten zebilen paretan behera.

Era berean, itoginez gain, zenbait paretan hezetan orbanak



Zenbait lekutan ontziak ipini behar izan dituzte jausten den ura batzeko.

ikusten dira; bigarren solairuko pasilloan eta hirugarren solairuko paretetan, adibidez.

Baina, arazoa konpondu daitেকেela esan digu alkateak. Palmiro enpresa gasteztarrak egin-

go ditu lanak. Baina lanok egiteko ingurua siku egotea behar dute, eta badirudi azkenaldian dagoen eguraldiarekin nahiko zaila izango dela hori. Bien bitartean, ura batzen segitu behar.

LABUR

Udaletxea berritzeko lanak esleitu dituzte, baina ez dute zehaztu noiz hasiko diren

Mauricio Arregi enpresari esleitu dizkiote udaletxea berritzeko lanak. Hala erabaki zuen udalbatzarrak joan den astean. Edoze-lan ere, oraindik zehaztu egin behar dute lanok noiz hasiko dituzten, baita aurrekontua ere. Hain zuzen ere, oraingo astean bertan batzarra izan dute Udaleko eta enpresako ordezkariak halakoak zehazteko. Eta bestelako gaien artean, udalbatzarrak zera erabaki zuen: herrian lan handiak egiten dituztenean, halakoetan erabiltzen dituzten seinaleztapen kartela euskaratu egingo dutela eta lanak egiten dabilen enpresari utzi, harik eta lanak bukatu arte.

Datozen hiruzpalau hilabeteotarako irakasle berria etorri da herriko KZgunera

Mertxe Elortzaren amatasun baja dela eta, datozen hiruzpalau hilabeteotan irakasle berria izango da KZgunean. Durangarra da. Harri Guridi deitzen da. Gatzagan ere jarduten du, arratsalde; hortaz, Aramaion goizez zabalduko du KZgunea, 09:00etatik 13:00etara.

Hauteskundeetan parte har dezaketen herritarren errolda jendaurrean

Astelehenean ipini zuten udaletxepean martxoko hauteskundeetan botoa eman dezaketen herritarren zerrenda. Datorren astelehenera arte (otsailak 2) izango dira ikusgai. Zerrendan agertu ezan, ezin izango da botorik eman. Hala, norbaitek erreklamaziorik egin nahi badu, astelehenera arte dauka egiteko.



Aratusteetako mozorro lehiaketa abian

Laster dira Aratusteak geurean: otsailaren 21ean. Hala, Udalak zabaldu du aurtengo mozorro lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea: otsailaren 11ra arte. Liburutegian eman beharra dago izena. Urtero moduan sei mozorro sarituko dituzte, sail bakoitzetik bi: haurrena, 14 urtetik aurrerakoena eta orijinalena (banakakoa edo taldekakoa).

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

GAZTE LOKALAK DIRELA-ETA

Udaletik zera jakinarazi digute: gazte lokalak erabili nahi dituzten 14 urtetik 20 urtera bitarteko gazteak udaletxera joan daitezkeela izena ematera. Otsailean.

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Neskek ahul samar segitzen dute; izan ere, Lan eta Jolas taldeen kontra 1-10 galdu zuten. Mutilek, berriz, 0-5 irabazi zioten Canciller Ayala taldeari. Oraingo asteburuan, neskek Jesus Obreroren kontra jokatu beharko dute, kanpoan, 12:30ean. Eta mutilek Lan eta Jolas taldea izango dute aurretik, 11:00etan.

DOMEKAKO ZINEMA

El Tesoro de Manitu filma emango dute.

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Ageda bezpera dela-eta, eskean joateko irteera antolatuta dute. Asmoa da ohitura zaharrak gordetzea eta, bide batez, Aramaioko txokoak ezagutzea. Hala, jendea parte hartzera animatu nahi dute. 14:30ean aterako dira, San Martin eliza aurretik.

Ipuin lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

UBANE MADERA

Txirritola Euskara Elkarteak Txirritola Ipuin Lehiaketa abiarazi du. Parte hartu nahi dutenek datorren otsailaren 18a baino lehen eman beharko dituzte egindako lanak. Udal Liburutegian aurkeztu beharko dituzte ipuinak. Hamar egun geroago, otsailaren 28an, banatuko dituzte sariak.

Txirritola Ipuin Lehiaketan Aramaion bizi edo ikasten duen edozeinek parte hartu ahal du, betiere, idatzitako ipuina euskaraz idatzita badago eta argitaratu barikoa bada. Era berean, parte-hartzaile bakoitzak lan bakarria aurkeztu ahal izango du.

HIRU SARI MOTA

Baldintza horiek betez gero, edozein gairen gainean idatz daiteke ipuin lehiaketan parte hartzeko. Hori bai, asko jota bi orriko lanak egin beharko dira.

Lehen esandako moduan, sariak otsailaren 28an (zapatua) banatuko dituzte, kultura etxean. Adinaren arabera egingo dute sari banaketa. Hala, Lehen Hez-

kuntzako bigarren eta hirugarren ziklokoen mailarako bi sari izango dira: 60 euro bonotan irabazlearendako eta 48 euro bonotan bigarrenarendako.

Eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo ziklokoen mailan ere bi sari izango dira: 120 euro lehenengoarendako eta 90 euro bigarrenarendako.

Hori bai, epaimahaiak ikusten badu lanek ez dutela gutxieneko kalitatearik, sariak hutsik uztea erabaki dezake.

EGILEAREN GOITIZENA

Lehen esandako moduan, ipuinak Udal Liburutegira eraman beharko dira, kartazal handi batean sartuta. Kartazal horretan zera idatzi beharko da: ipuin lehiaketaren izena, egilearen goitizena eta zein mailakoa den. Eta kartazalaren barruan sartu beharko dira ipuina eta beste kartazal txiki bat. Han, ipuinaren egilearen izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko dira.

Arrakasta handia izan ohi du Txirritola Euskara Elkarteak antolatzen duen ipuin lehiaketak. Iaz, adibidez, 22 idazlan aurkeztu zituzten.



Hirugarren Munduko egoera aztergai

Gobernuz kanpoko Harreman elkartearen eskutik, makina bat ekitaldi izan dituzte oraingo astean San Martin eskolako umeei. Besteak beste, Indiako eta Nikaraguako egoeraren berri eman diete, bidezko merkataritza landu dute eta globalizazioaren eraginetako batzuen berri izan dute. Hori guztiori hitzaldien eta bideoen bitartez. Eta argazki erakusketa izan dute.

BOTEPRONTOAN/ Margari eta Felisa Arana · Jertsegileak

“Lanean hasi ginenean, gaueko hamabiak arte jarduten genuen jertseak egiten egunero-egunero”

Aramaion sasoi batean izan zen jertsegilerik. Denda ere izan zuten Ibarren. Nahiz eta urte mordoak jertseak egiten ibili, Margari eta Felisa Arana Zapateronekoak izango dira aramaiorendako, aita zapataria zuten eta:

Zela hasi zineten jertseak egiten?

Bilbotik andre-gizon bi etorri ziren. Gizona mondragoetarra zen, baina Bilbon ezkondu. Eta, ez dakit zela, Aramaiora etorri ziren. Andrea puntua egiten hasi zen. Beste neska bat ere bazegoen, plazako taberna batekoa (Polikona). Eta neska hura bilbotarraren etxera joan zen zerbitzari moduan-edo. Biak hasi ginen puntu hori ikasten, Bilboko andrearekin. Neskaren eta bion artean jertse bat egiten genuen egunean. Halako batean, bikotea joan egin zen. Eta neu etxera bueltatu nintzen.

Hori Felisak egin zuen; bien bitartean, Margari, zertan zenbiltzan?

Josten ikasten. Orduan, geure aita-amak pentsatu zuten lantegi bat ipintzea puntua egiteko.

Makina eta guzti?

Lehenengo ahaleginu ginen Mondragoen erosten makina hori, baina han ikusitakoa ez zitzaidan gustatu. Gero, norbaiten esan zigun Durangon egiten



zituztela makinak, eta hara joan ginen. Neurriera egin ziguten bat. Suitzatik ekarritako modelo baten kopia. Oso-oso handia zen. Jertse erdi finak egiteko.

Etxearen beheko aldean ipini genuen lantegia aitaren zapata-dendaren ondoan (1948-49 inguruan). Gero, aita hil zenean, aitaren zapata-dendara aldatu genuen gure denda, oso hotza

zen-eta. Gainera, ez zegoen berogailurik. Ezkaratza geneukan behean, txapan egiten zen sua, eta lan apurra egin eta hantxe berotu behar izaten genituen eskuak. Neuk ehundu egiten nuen eta Margarik piezak muntatu (mahukak-eta). Gaueko hamabiak arte ibiltzen ginen lehen hasieran, egunero-egunero.

Gero, Gasteizen beste makina bat erosi genuen (Arnal dendan) jertse sendoak egiteko. Bilboko erakustazokan ikusi genuen. Esan daiteke ohi baino aurrerakoiagoak ginela halakoetan. Dena dela, oraindik ere eskuz egin behar izaten genuen guztia. **Beti eskuz egiten genuen lan?**

Ez. Makinok txiki geratu zitzaizkigunean, Bartzelonan motorduna erosi genuen, 100.000 pezeta ordainduta. Aramaioko bakarria zen. Plantxa industrialia eta *remalloso* ere erosi genituen. Hari esker, lepoak, eskumuturra... ez genituen eskuz josi behar. Argindarrak ez zegoen orduan etxeetan, baina ehungintzan jarduten duen lantegi bat geneukan gertuan; argindarra erabiltzen zuen hark, eta handik lortu genuen guk.

Oraindik ere baduzue sasoi hartako jertserik?

Bai. Etxean ibiltzeko jantziak (praka eta jertsea), jertseak... Kalean ere ikusten ditugu. Oraingoekin konparatzen, oso kalitate oneko jertseak egiten ziren lehen.

Enkarguz lan egiten zenuten; baduzue gogoan halakoren bat?

Bai, dena enkarguz. Behin, adibidez, Mondra taldekoendako bufandak egin genituen, mordo, lila eta zuria.

ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko
katekistak
Arraten

Saso bateko Arrasateko katekisten argazkia ekarri digute oraingo astean. Eibarren dago aterata, Arraten, hain justu ere. Izan ere, txangoa egin zuten Arrasateko parrokiaren lan egiten zuten katekistek, urte luzean lanean ibiltzearen sari moduan. Arrateko gogartetxearen aurrean dago aterata argazkia. Gaur egun Hotel Arrate da eraikin hura. Gure berriemaileak esan digunez, 1958-1959a urtea zen.

Honako hauek azaltzen dira argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Paquita Sagasta, Carmen Balerdi, Pilar Artzamendi, On Teodoro Goñi (Alemaniara joan zen gero), Milagros Zubia, Josefina Fernandez, Carmen Osinaga, Ana Mari Askasibar, Marisol Agirre, Mariasun Berezibar, Miren Uriarte eta Luisa Garmendia.

Eta behean honako hauek azaltzen dira, ezkerretik eskumara: Mari Lete, Marisol Iturbe, Carmen Berezibar, Miren Gaztañaga, Isabel Mondragon eta Garbiñe Zubiaga.

Katekista bakoitzak talde bati



erakusten zion, 20 bat neska-mutikoen talde bati. Doktrina erakusten zieten. Gure berriemaileak ez du gogoratzen zein adinekin hasten ziren umeak ikasten; hori bai, gaur egun moduan, Lehenengo Jaunartzea egin arte segitzen zuten doktrina ikasten. Gaur egungoarekin konparatzen, beste

modu batean erakusten zutela esan digu; bestelako gauzak ere bai.

Eskolaren ostean joaten ziren umeak elizara, eta elizako jarlekuetan eserita ikasten zituzten katekistek esandakoak.

Ikusten duzuen moduan, gizon bat bera ere ez dago katekisten artean.

Gure berriemaileak kontatu digu halakorik ez zela izaten, ez dakiela zergatik, baina gizonak ez zirela katekista izaten.

Argazkia eta informazioa: Miren Uriarte.
Urtea: 1958-59.


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Seber Altube
eta San
Frantzisko

Frantziskotarren eliza eta komentua XVI. mende amaieran hasi ziren egiten. Arkitektoa Miguel Aranburu izan zen, Zeraingo arkitekto ospetsua. 1892an, komentua ikastetxe eta ospitale bihurtu zuten, Mesedeetako mojen ardurapean. Frantziskotarrak 1954an bueltatu ziren. Ondoko argazkia gerra aurrekoa da, eta Elorriorako autobus dotorea ikusten da.



≈ 1935 Jerardo Elortzak orain dela urte batzuk egindako idatziari esker dakigu goiko argazkia gerra aurrekoa dela.



2004 Seber Altube plaza 1977ko otsailaren 2an inaguratu zuten, eta orain dela urte gutxi, berriro egin zuten. Gaur egun, oinezkoendako gune da.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

GORKA
ilepaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferreries 35 - 943 77 13 78

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE


UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Arrasate Irratia

Beti airean.

24 ordu etengabe emititzen



parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 943 79 44 22